

**Aitatasun positiboak:**  
**aldaketak eta erronkak aitek**  
**haurren hazkuntzan eta**  
**erantzunkidetasunean duten**  
**inplikazioan**

EMAITZEN TXOSTENA  
2016ko maiatza



## **IKERKETA-TALDEA:**

### **Deustuko Unibertsitateko taldea.**

Ikertzaile nagusia: Leire Gartzia Fernández.

[Leire.gartzia@deusto.es](mailto:Leire.gartzia@deusto.es)

Laguntza teknikoa: Jon Paul Laka Mugarza

Ikerketarako laguntza: Amaia Larrazabal Martín, Elena García Nazábal.

### **Koordinazioa:**

Ritxar Bacete González. [ritxar.bacete@gmail.com](mailto:ritxar.bacete@gmail.com)

**Bilbo, 2016**

# Edukien aurkibidea

|   |           |
|---|-----------|
| Laburpen betearazlea                                | 4         |
| Testuingurua - emaitzen txosten honi buruz          | 5         |
| <b>1.- Sarrera / esparru teorikoa</b>               | <b>6</b>  |
| a. Generoa eta erantzunkidetasuna                   | 7         |
| b. Gizonak etxean.                                  | 9         |
| c. Aldaketaren faktore psikosozialak                | 12        |
| d. Ikerketaren helburuak                            | 17        |
| <b>2.- Diseinua eta metodologia</b>                 | <b>19</b> |
| a. Ikerketaren diseinua                             | 20        |
| b. Laginaren neurria eta ordezkagaitasuna           | 21        |
| c. Laginaren deskripzioa                            | 23        |
| d. Aldagaien deskripzioa                            | 26        |
| <b>3.- Emaitzak</b>                                 | <b>39</b> |
| a. Datuen matrizea eta erantzunen azterketa         | 40        |
| b. Azterketa deskribatzaileak eta elkartze-neurriak | 42        |
| <b>4.- Ondorioak eta lanerako lan-arloak</b>        | <b>60</b> |
| a. Ikerketaren ondorio nagusiak                     | 61        |
| b. Lan- eta esku hartze-arloak                      | 65        |
| Bibliografia  | 71        |
| Esker ona   | 73        |
| Eranskinak  | 74        |

## Egikaritze-laburpena

Txosten honetan *Aitatasun positiboak* ikerketa-ekintza proiektuan egindako jarduerak daude. Proiektu hau nazioarteko hainbat unibertsitaterekin egindako lankidetzaproiektu baten barruan dago eta aitek eta hauen bikoteek etxeko eta zaintzako funtzioetan duten inplikazioari buruzko alderdiak aztertzen ditu; funtzio horiei lotutako aldagai psikosozialak, egiturazkoak eta sozio-demografikoak sakonago aztertzea da xedea. Galde-sorta batean oinarritzen da azterketa, eta datu binakatuak galdetu zaizkie 0 eta 16 urte arteko seme-alabak dituzten 118 bikote heterosexuali. Ispilu-ikuspegi hau sartzearen ondorioz, bikoteko bi kideen pertzepzioetan dauden aldeak berariaz ikusi daitezke eta esku-hartzeko balizko arloak identifikatu ere bai. Proiektu honen helburu nagusiak hauek izan dira: (1) bikotean bizi diren amek eta aitek balioetan, emozioetan eta pertzepzioetan dituzten desberdintasunak aztertu, (2) gizonek etxeko eta zaintza lanak berdinean egitea garatzen edo galarazten duten aldagai psiko-sozial funtsezko batzuk identifikatu, eta (3) parte hartu duten bikoteei diagnostikorako eta hausnarketarako tresna bat eskaini, hobetu beharreko arloak identifikatzeko lagungarri izan ditzaten eta jarraibideak eman.

**FUNTSEZKO HITZAK:** gizarte-aldaketa, erantzunkidetasuna, emozioak, estereotipoak, feminismoa, generoa, nortasuna, maskulinitateak, amatasuna, aitatasuna eta etxeko lanak.

# Testuinguruan kokatzea

Gizonek etxeko erantzukizun gehiago hartzen laguntzeko faktoreak identifikatzeko behar handia dago nahiz ikuspegi akademikotik nahiz ezarritako eremutik. Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez, urteak daramatza erantzunkidetasunaren eta bizitza pertsonala, familiarra eta profesionala uztartzeko alorrean programak eta proiektuak garatuaz, baita aitatasun estilo erantzulegoak garatzen ere, gure gizarteko erronka berrien arabekoak. Esparru honetan, eta aurrez planteatutako ekintzen ahaleginak jaso ondoren, Eusko Jaurlaritzak 2015ean beste lan ildo bat jarri zuen abian Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan eta nazioarteko beste unibertsitate batzuekin eta generoan eta maskulinitatean espezializatutako talde batekin duen lankidetzaren proiektu baten markoan. Lanerako ildo honen ardatzak dira hauek dira: aitekin lantzeko berriazko erronkak eta gizonak ugalketa eta zaintza lanetan inplikatzeko.

Txosten honetan lankidetzaren proiektu honen markoan orain arte abiatutako ekintzak daude. Lanaren lehenengo fase honetan egin diren ekintzekin kudeaketarako eta esku hartzeko giltzarriak identifikatu dira; horiei esker, erakunde publikoek gizarte berdinagoa sustatzeko erronkari heldu ahal izango diote, familia eredu erantzunkideagoak sustatu ahal izango dituzte, gizonen funtzioa gero eta berdinagoa dena izan duen ohiko funtzioarekin alderatuz gero. Horretarako jarri zen abian *Aitatasun positiboak* ikerketa-ekintza proiektua. Gaira lehenengo gerturatzea egin zen bikotean bizi diren eta 16 urtez azpiko seme-alabak dituzten euskal gizon eta emakumeekin eta funtsezko hiru helburu zituen: (1) bikotean bizi diren amek eta aitek balioetan, emozioetan eta pertzepzioetan dituzten desberdintasunak aztertu, (2) gizonek etxeko eta zaintza lanak berdinean egitea garatzen edo galarazten duten aldagai psiko-sozial funtsezko batzuk identifikatu, eta (3) parte hartu duten bikoteei diagnostikorako eta hausnarketarako tresna bat eskaini, hobetu beharreko arloak identifikatzeko lagungarri izan ditzaten eta jarraibideak eman.

Txosten honetan orain arte abian jarritako ekintzak jaso dira eta orain arteko emaitza nagusiak aztertu dira. Gainera, ondorioz garrantzitsuenak planteatu dira eta gaien ikuspegi psiko-sozialetik lanean jarraitzeko balizko esku hartze lerroak adierazten dira, horrela, erantzunkidetasunaren eta zaintzaren arloan emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrari lagunduko litzaioke.

# Sarrera / esparru teorikoa

# 1. Sarrera / esparru teorikoa

Azken hamarkadetako gizarte-aurrerapenei esker genero-erolek nolabaiteko malgutasuna duten arren eta gizarteko eremu askotan gizonen eta emakumeen funtzioak aldatzeko mesedegarriak izan diren arren, emakumeak eta gizonak laneko sexu-zatiketaren arabera sozializatzen jarraitzen dira, arau eta igurikimen desberdinak izaten dituzte rol profesionalei eta etxeko lanetako parte hartzeari dagokionez (Eustat, 2012; Emakunde, 2014). Desberdintasun hauen ondorioz, gaur egun etxeko lanetan banaketak argi jarraitzen du eta emakumeek egiten dute ugalketa eta zaintza lanik gehien (Europako Batzordea, 2015). Gizonek eta emakumeek kultura-testuinguru desberdinetan etxeko eta laneko zereginetan igarotzen duten denbora aztertzeko egindako denbora-erabileren azterketak oraindik ere argi uzten du gizonen esku hartzea, oro har, ez dela nahikoa eta, bereziki aiten esku hartzea ez dela nahikoa ugalketa eta zainketa lanetan (Europako Batzordea, 2015; Emakunde, 2014). Desberdintasun hauek betikotzen ari dira belaunaldi berrietan bete beharreko rolen inguruan igurikimen desberdinak sortzen direlako eta igurikimen horiek indarrean jarraitzen dute kualifikazio handieneko gizon eta emakume gazteetan ere (Gartzia eta Fetterolf, 2016).

Gure gizarteak testuinguru honetan duen lehenengo ezaugarrietako bat da erakunde publikoen gehieneko borondatea emakume eta gizonen arteko berdintasunezko espazioak lortzea dela, dela giza garapenaren ikur bezala dela banakako eta taldeko gaitasunak eta kompetentziak indartzeko. EAEn botere publikoetatik jarduera asko jarri dira abian helburu hau lortzeko eta emakume eta gizonen artean berdintasun handiagoa sustatzeko. Ahalegin horien ondorioz, azken urteotan aurrerapen handiak egin dira arlo honetan, batez ere emakumea espazio publikoan eta profesionalean sartzeari dagokionez. Baina gizonak etxeko eta ugalketa lanetan sartzeari ez da paraleloan joan. Hori dela eta, Emakundek esaten duen bezala (Emakunde, 2014), berdintasuna lortzeko uztartze erantzunkideko ekintzak eta politikak garatu behar dira nahitaez ekoizpen eta ugalketa lanetan aukera-berdintasun handiagoa sustatu dezaten, gizonak hartu beharreko nahitaezko aldaketak barne.

Behar horien ondorioz planteatzen da proiektu honean azterketa-ildo hori sakontzea eta emakume eta gizonen artean dauden aldeak aztertzea etxeko eta zaintzako lanei lotutako dimentsio psiko-sozial desberdinei dagokienez. Alde horiek betikotzeari lotutako balio, emozio eta pertzepzioetan sakondu da bereziki. Horrela, ekintzarako eta esku hartzeko tresnak aurkitu nahi dira, gai honetan ikuspegi psiko-sozialetik aurrera egiten jarraitu ahal izateko. Jarraian ikerketa honetako oinarri teoriko nagusiak daude.

## 1a. Generoa eta erantzunkidetasuna

Zalantzarik ez dago azken hamarkadetan eraldaketa handiak egon direla maskulinitateari eta aitatasunari dagokionez. Aldaketa hauek eredu ekonomikoak, sozialak eta familiakoak eboluzionatzen eta aldatzen ari diren testuinguruan gertatu dira eta aldaketa hauetan genero-rolak oso zalantzen jartzen ari dira.

Era berean, eraldaketa hauek eta aitek belaunaldi arteko hazkuntza lanetan sartzean izandako eraginek lotura estua dute azken hamarkadetan kulturaren, ekonomian eta politikan egondako aldaketekin, emakume eta gizonen egiazko berdintasuna lortzeko lehentasuna izaten jarraitu baitu politika publiko eta sozialetan.

Eraldaketa hauetan bada funtsezko elementu bat eta zuzeneko lotura du gizonen ugalketa eta zaintza lanetan inplikatzearekin: emakumeek lan eta ekoizpen munduarekin duten harremanean egon den belaunaldi arteko aldaketa esanguratsuz ari gara. Eurostateko datuen arabera (Eurostat, 2014), 25 eta 29 urte arteko emakumeen enplegu-tasa 1986an % 31koa izatetik 2012an % 62koa izatera igaro da. Egiturazko aldaketa hauei lotuta, faktore ideologikoak eta jarrerazko faktoreak ere pixkanaka aldatzen ari dira. 2012ko CISen inkestako datuen arabera, belaunaldi berriek iritzi-inkestetan adierazten dituzten jarrerak familiaren barruko berdintasunaren aldekoak dira argi eta garbi, eta horrelakorik ez zen pentsatu ere egiten duela bi hamarkada. Inkestatutako 25 eta 34 urte arteko pertsonen % 79ren ustez familia ideala da *bikoteko bi kideek antzeko dedikazioarekiko soldatapeko lana dutena eta biek etxeko lanak eta seme-alabak zaintzekoak banatzen dituztena* (CIS, 2012).

Aldaketa hauek Lege mailako beste aldaketa batzuei lotuta joan dira eta lagungarriak izan dira zaintzen arloan behar ziren eraldaketetarako. Adibidez, gizonen hazkundean duten inplikazioan azkenaldian egondako aldaketa azaltzeko eta belaunaldi batetik bestera egondako aldaketa nabarmenerako elementu garrantzitsua da 2007az geroztik lana egiten duten aitek aitatasunagatik 13 eguneko baimena izatea eta besteren kontura ari direnek 2 egun gehigarri izatea. 2 eguneko aldea, hau da 13 egunetik 15era igarotzea, ez da bereziki esanguratsua hazkuntzako inplikazioari dagokionez, baina joera bat markatzen du rolen eta erantzukizunen arloan, aiten inplikazioari dagokionez.

Baina aitek beren seme-alaben hazkundean eta sozializazioan parte hartze aktiboagoa izateko eskariak ez dira berriak, jakina. Olavarríak Men at home (Olavarría, 2003) lanean gizon gazteen aitatasunean azkenaldian egondako aldaketak laburtu ditu eta hazkuntzan gizonen inplikazio handiagoa izateko eskari hauek areagotu egin dira azken urteetan, gizarteko sektore guztien bidez. Baina, egile horrek berak azaltzen duen bezala, aita gazteak oro har seme-alaben hazkuntzan amari laguntzera mugatzen dira, bereziki lehenengo hilabete eta urteetan (Olavarría, 2003, *in* Lewis y Lamb, 2007). Hori dela eta, desberdintasunek irauten egiten dutela argi dago oraindik, nahiz eta aitaren rola aldatzen ari dela eta eredu berdintzaileagoetara doala oro har onartzen den arren, eraldaketa ekonomiko eta sozialen ondorioz.

Arlo honetan egiten ari den aurrerapen txikiaren elementu garrantzitsu bat amek eta aitek beren amatasunari eta aitatasunari buruz dituzten bizipen subjektiboei buruzkoa da, baita inplizituki erantzun beharreko gizarte eta kultura arloko igurikimenez duten pertzepzioei buruzkoa ere. Oro har, eta genero-estereotipoen agindu gogorren eraginez, amek beren seme-alabek arduratu behar dutela "sentitzen" dute, eta askotan errudun sentitzen dira hori egiterik ez badute. Bestalde, aitek "sentitzen dute" familiaren egonkortasunaz eta ekonomiaz arduratu behar direla garapena bermatzeko, eta askotan errudun sentitzen dira zeregin horiei behar bezala erantzuterik ez badute. Elementu psikologiko, emozional eta subjektibo hauek erabakigarriak dira pertsonen banako jokaeran eta, ondorioz, behar bezala aztertu eta tratatu behar dira, egiturazko beste elementu batzuekin batera.



Aitatasun konprometitua amei etxeko eta zaintza lanetan "laguntzetik" harantzago doa; zaintzen hornitzaile gisa gizonari lotutako hainbat zeregin sartzen dira, eusteko ideologia izan behar da eta garatzeko erlazio-testuingurua ere bai. Aitatasun eredu berri honen garapenak aldaketa sakonak ditu berekin egitura eta nortasun mailan, prozesu honetan hainbat faktore eta elementu sozial eta psikologikok dute zerikusia eta horietan guztietan sakondu beharra dago. Dena dela, aitatasunen azterketa, jarduera eta gizonak duten esanahi subjektiboa oraindik ere oso mugatuta dagoen azterketa eremua da. Historiagrafia sozial feministatik erakutsi duen legez (Aresti, 2010), maskulinitate eta feminitate eredu nagusia, eta ondorioz, aitatasun eta amatasun eredu nagusia, aldatuz joan da historian zehar eredu hegemonikoen eta alternatiboen arteko erlazio dinamikoan. Baina eraldaketa horien bizipen subjektiboari buruzko berriazko ikerketa eta gizonak etxeko lanetan duten inplikazioa mugatuak dira; galdera asko dago gizonen, eta zehatz esateko aiten, jarreran, nortasunetan eta bizipenetan elkarrekintza sozial, ekonomiko, harremanezko eta kultural multzo konplexuak nola eragiten dutenari buruz.

## 1b. Gizonak etxean

Aitatasun eredu berriak sortzen parte hartzen duten mekanismoak identifikatzeko diziplina berriak eraikitze bidean, gero eta azterketa gehiago oinarritzen da gizonak etxeko eta zaintza lanetan inplikatzen balizko onurak identifikatzen; onura horiek ez liriteke soilik emakumeentzat, baizik eta gizonentzat eta berak ibiltzen diren sistemarentzat ere bai. Gero eta ikerketa gehiagok azpimarratzen dute aitatasunaren eredu alternatiboek maila desberdinetan duten eragin positiboa, familiarentzat dituen balizko onurak barne. Adibidez, *MenCare*, *Promundo*, *SaveTheChildren* eta NBE Emakumeek lan bat egin zuten aitatasunaren egungo egoeraz eta 2015eko ekainaren 16an aurkeztu zuten NBEren New Yorkeko egoitzan; lan horretan adierazten da gizonak inplikazio handiagoa duten aitatasun estiloa izanez gero zer eragin izango lituzkeen berdintasunean eta familia barruko ongizatean. Txosten hau erreferentzia da gaian eta aitek beren seme-alaben hazkuntzan eta bizitzan presentzia eta inplikazioa izateak epe luzerako zer garrantzi ea eragin duen azpimarratu da (hainbat egile-MenCare, 2015).

Azterketa longitudinaletan badira ebidentziak (Sarkadi, Kristiansson, Oberklaid eta Bremberg, 2008) eta argi utzi dute aitaren parte hartze aktiboa onuragarria dela haurren garapenerako. Ildo honetan, Txileko osasun-sistema publikoan aitek duten parte hartzeari buruzko txosten batek (Aguayo, Correa eta Kimelman, 2012), ondorioztatu du parte hartu zuen aita izan zuten haurrek hainbat alorretan garapen hobea izateko aukera handiagoak dituztela, hala nola, eskolako errendimenduan, garapen kognitiboko eskaletako emaitzetan, estres txikiagoa helduaroan edo jokabide-arazo gutxiago. Azterketa hau justifikatzeko, hainbat ikerketa aipatzen diren eta iradokitzen zen aiten presentzia esanguratsua eta kalitatezkoa izan bada seme-alaben bizitzan, hainbat arlotan garapen hobea izaten dutela, hala nola, beren garapen fisiko eta psikikoan, ikasketetarako motibazioan, gizarte-trebezietan, autoestimua handiagoan eta jokabide-arazo txikiagoak (Allen eta Daly, 2007; Barker, 2003; Nock eta Einolf, 2008; Sarkadi, 2008).

Michael Lamb Cambridgeko Unibertsitateko Gizarte Psikologia eta Psikologia Ebolutibo saileko irakaslea da eta ikerketa lan garrantzitsua egin du

aitek haurren garapenean dituzten roletan eta aiten inplikazio positiboaren garrantzia abalatu du, atxikimendu seguruko harremanak sortzeko elementu giltzarritzat. Lamben esanetan (Lamb, 2004), aitatasun eredu berrien ezaugarria da maskulinitate eta aitatasun eredu hegemonikoekin distantzia markatzea, eredu hori hornitzailea eta emozionalki urruna baita; horren ordez, hazkuntzan inplikazio aktiboa du, enpatia erakusten du, ugalketa lanetan parte hartzen du eta seme-alabei lehentasuna ematen die, eredu tradizionalarekiko oposizioan definitzen da, batez ere.

Kanadako University of British Columbiak (azterketa honetan parte hartzen ari denak) duela gutxi egindako azterketa baten arabera berdintasuna nagusi den etxeetan, aitek eta amek etxeko lanak berdin banatzen dituztenetan, seme-alabek berdintasunaren aldeko helduak izateko aukera handiagoa dute. *Psychological Science* aldizkarian argitaratutako azterketa batek elementu interesgarri eta itxaropentsu bat du: 7 eta 13 urte arteko 326 haurri jasotako datuetan oinarritzen da eta horren arabera, etxeko lanen banaketan oreka handiagoa egonez gero gurasoen artean, datozen belaunaldietako lan-indarrean berdintasun handiagoa sustatu daiteke (Croft, 2014).

Aiten ikuspegitik ere badira beste ebidentzia batzuk eta horien arabera, beren aitatasunean parte hartzen duten gizonak beren bizitzarekin gustura egoteko aukera handiagoa dute eta osasun-adierazle hobeak izatekoa ere bai, hala nola, luzeago bizi eta gutxiagotan gaixotu, alkohol eta droga gutxiago kontsumitu, estres txikiagoa edo istripu gutxiago izan (Aguayo, Correa eta Kimelman, 2012). Aitaren presentzia aktiboa eta erantzunkidea positiboa izaten da amentzat ere, zaintza eta etxeko lanetan gainkarga txikiagoa izaten baitute eta beren osasun fisikoa eta psikikoa hazi egiten da (Barker, 2003).

Gizonak etxeko eta zaintza lanetan gehiago sartzeak balizko abantailak dituen arren, datuen arabera etxeko lanen banaketan desberdintasun nabarmena dago. Eustaten datuen arabera (Eustat, 2012), EAEn lanean dabiltzan biztanleen kasuan, aldeak daude gizonen eta emakumeen artean. Hori dela eta, emakumeek gizonak baino hein handiagoan berregituratzen, berrantolatzen eta baldintzatzen duten lan-merkatuan izan dezaketean parte hartzea, beste pertsona batzuen arreta eta zaintza beharrekin bateragarriago egiteko. EUSTATEN Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkestak (2012) Euskadiko biztanle landunen informazioa ematen du etxeko lanei eskainitako denboraren arabera. Emakumeek gizonak baino denbora askoz gehiago ematen dizkiote ugalketa jardueri, batez beste 9,4 ordu; gizonak, aldiz, 6 ordu ematen dizkiote. Generoen arteko aldea seme-alaba adingabeen zaintzan antzematen da batez ere (1,8 ordu). Etxeko lanen eta mendekotasuna duten adinekoen zaintzaren kasuan, aldiz, alde hau txikiagoa da (0,8 ordu) kasu bakoitzean.

Etxeko lanen barruan egiten diren jardueretan arreta jarrita (otorduak prestatu, arropa garbitu eta lisatu, erosketak egin...) argi ikusten da emakumeek gizonak baino askoz ere denbora gehiago ematen dizkietela astean zehar (8 ordu emakumeek, 7 ordu gizonak). Emakunderen Zifrak txostenaren arabera (Emakunde, 2014) eta Biztanleria Jardueraren arabera sailkatzeko Inkestako datuek adierazten dute etxeko lanak emakumeek egiten dituztela batez ere. Etxeko lanak egin ohi dituzten biztanle aktiboen % 54,4 emakumeak dira, eta portzentaje hori handiagoa da biztanle ez aktiboen kasuan (% 72,0). Emakumeentzat, nahiz aktiboentzat (% 87,7) nahiz ez aktiboentzat (% 75,5), etxeko lanak egitea ohikoa da

eta gehiengoak egiten du. Gizonetan nagusi dira biztanleria aktiboan (% 63,1), baina ez aktiboan % 42,2 bainok ez ditu egiten etxeko lanak.

Datuen konparatiba dinamikoagoa eginez gero eta denboran zehar datuek izandako eboluzioa aztertu, azkeneko 15 urtean gizonen zeregin hauetan parte hartzeko joera hazi egin da (ordubetetik 7 ordura). Familiakoak zaintzeari buruz Emakunde egindako txostenaren arabera (Emakunde, 2014), horrelako lan-utzialdia duten gizonen ehunekoa duela urte batzuk baino apur bat handiagoa da, 2013ko lan-utzialdien % 17,5 izan ziren. Baina genero arloan arraila handia dago eta gizonen oraindik ere emakumeek baino denbora gehiago igarotzen dute aisiako jardueretan, aldeak apur bat txikitu egin dira erosketak eta kudeaketak egiteari dagokionez (Emakunde, 2014) eta azken urteetan gizartean aldaketak egon diren arren, emakumeek gizonen baino denbora gehiago igarotzen dute etxeko lanak egiten. Emakumeek gizonen baino bi ordu gehiago ematen dute batez beste egunean etxeko lanetan. Bestalde, Emakunderen txosten horren arabera, bizitza sozialari eskainitako denboran galera egon da, batez ere gizonen kasuan, izan ere arlo honi 31 minutu gutxiago eskaintzen dizkiote; emakumeek, aldiz, 20 minutu gutxiago. Eustaten datuen arabera (Eustat, 2012). Mendeko familiakoak zaindu beharra dagoenean, lana egiten duten emakumeen % 40,1 egunean 3 ordu edo gehiago aritzen da zeregin horretan, eta gizonen kasuan % 16,9ra jaisten da ehuneko hori.

Gizonen eta emakumeen ugalketa eta zaintza lanetan parte hartzeko desberdintasunetan eragina izan dezakeen beste alderdi garrantzitsu bat legedi mailan dago, alde handiak baitaude guraso-baimenen kasuan. Guraso-baimenen espainiar sistemaren arabera, amek 16 asteko amatasun-baimena dute eta horietatik 10 aitari eman dakizkioke. Aitek legez 15 eguneko aitatasun-baimena izan dezakete besteren kontura ari badira eta 13 eguneko autonomoak badira. Legez nahiz aitak nahiz amak dute seme-alabak zaintzeko lan-utzialdia edo ordaindu gabeko baimenak hartzeko eskubidea (autonomoek izan ezik), gehienez ere hiru urtez. Kontuan izanda azterketa zenbaitek bikotearen berdintasunezko harremanetan lehenengo semearen edo alabaren jaiotzari zer garrantzi ematen dioten (Seidler, 2015; Abril, Amigot, Botía, Domínguez-Folgueras, González, Jurado-Guerrero, Lapuerta, Martín-García, Monferrer, eta Seiz, 2015), aldi hauek areagotu egin ditzakete familiaren barruko joera ez berdintzaileak, eta horiek eremu publikoko desberdintasun bihurtzen dira.

Aurrerapenak lortu ordez, amatasunagatiko prestazioen datuek argi uzten dute EAEn uztartzeko neurriak batez ere emakumeek erabiltzen dituztela. Gizon gutxik baliatzen dituzte laneko bizitza eta familiako uztartzeko neurriak: 2013an, prestazio horiek jaso zituztenen % 4,4 izan ziren. Oso kopuru baxuak badira ere, Euskadiko datuek Estatukoek baino errealitate apur bat positiboagoa erakusten dute, bertan gizonen % 1,7k baino ez baitute hartzen prestazioa. (Emakunde, 2014). Familia (seme-alabak edo familiako beste kide batzuk) zaintzeko lan-utzialdia dela eta, datuek argi uzten dute lan-utzialdiak emakumeek hartzen dituztela batez ere, % 90 hain zuzen ere, seme-alabak zaintzeko denean (Emakunde, 2014). Seme-alabak edo familiakoak zaintzeko lan-utzialdiengatik edo lanaldia murrizteagatik emandako laguntzei buruz Eusko Jaurlaritzak emandako datuak ere ildo beretik doaz, zaintzarako lan-utzialdia edo lanaldi murrizketa hartzen duten gizonen ehunekoa 7,12 da, aldiz,

emakumeak % 92,88 dira (2012ko datuak) (Iturria: Eusko Jaurlaritzako pentsa-oharra, 2016ko urtarrilak 20).

Beraz, oro har, gure gizartean azken hamarkadetan aldaketak egon diren arren, denboraren erabilera eta ugalketa eta zaintza lanak batez ere emakumeek egiten dituzte. María Ángeles Duránek denborari eta zaintzari dagokionez dio zaintzak "denbora irentsi egiten duela" eta orain arte gizarteko talde batzuetan kontzentratu dela, emakumeetan (Durán, 2007). Aitek eta amek zaintza lanetan duten inplikazio desberdina esanguratsua da oraindik ere, lanaren etxeko banaketa argia ageri da eta emakumeak dira etxeko lanik gehienak egiten dituztenak. Datu horiek egiaztatzen dute bizitza errealean gizonak ez dutela emakumeen parte-hartze berdina seme-alaben zaintzan, eta, bestalde, ez direla zaintzaile nagusiak mendekotasun-egoeran daudenei dagokionean edo etxeko lanak egitean. Beraz, beharrezkoa da alde horiek betikotzen dituzten aldagaiak identifikatzea, zuzentzeko eta gune berdinagoak lortzeko. Hurrengo atalean txosten honetarako azterketako aldagai psikosozialen eta hautatutako esku hartzeen deskribapen zehatzagoa dago.

## 1c. Aldaketaren faktore psikosozialak

Aurreko ateletan esan bezala, emakumeek eta gizonak etxekoari eta zaintzari buruz duten jokaera ulertzerakoan funtsezko elementua da errealitate horien bizipen subjektiboa, baita jokabide horiez gizarte eta erlazio arloko testuinguruak duen eragina ere. Duela hamarkada batzuetatik psikologiak, zehatz esateko psikologia sozialak, ikuspegi zientifikotik ulertu eta auresan nahi izan ditu pertsonen jokaerak, pentsamenduak eta emozioak. Erlazio horien markoan azterketa eta teoria garrantzitsuak garatu dira gure gizarteko estereotipoek eta genero-rolak pertsonen -emakumeen eta gizonen- jokabidean eragin erabakigarriak dituztela ikusteko, nortasunari, jarrerari eta emozioei lotutako oinarritzko prozesu psikologikoen bidez (adib., Eagly, 1987; ikus Gartzia eta López-Zafra, 2015; 2016, psikologia eta generoaren diziplinari buruzko Espainiako berriazko gogoetarako). Harreman hauetan genero ikuspegiarekin sakontzeko eta etxeko esparrua gune bezala hartzeko, azterketa honetan faktore psikosozial horiek sartu dira gizonak etxeko eta zaintza lanetan erantzukidetasun eta inplikazio handiagoa izateko elementu garrantzitsu gisa. Zehatz esateko, hauekin zerikusia duten elementuak hartu ditugu kontuan: a) genero-ideologia, b) zaintza-jarduerei buruzko emozioak, eta c) adierazkortasunari (ezaugarri estereotipiko femeninoak, esaterako, enpatio edo besteenganako orientazioa) vs. instrumentalitateari (ezaugarri estereotipiko maskulinoak, esaterako, anbizioa edo banako lorpenetarako orientazioa) lotutako ezaugarri eta helburu pertsonalen identifikazioa. Jarraian horietako bakoitzari buruzko marko teorikoa jarri dugu.

### 1c.a. Genero-ideologia/feminismoa

Mugimendu feministak zalantzan jarri du hamarkadetan zehar lanaren banaketa sexualaren legezkotasuna eta estereotipoak eta genero-rolak malgutzeko beharra planteatu du

gizarte berdinagoak lortzeko, gizonak eta emakumeak eskubide eta aukera berdina izan behar dituztela oinarri hartuta. Celia Amorós eta Ana de Miguelek diote gizartearen teoria kritikoa dela feminismoa, sexu-genero sistema da bere premisetako bat eta artikulatzen dituen mekanismoen bidez gizarte-errealitatea modu sinboliko eta esperientzian antolatzen da (Amorós eta de Miguel, 2007). Mugimendu ideologiko honekin emakumeak identifikatu izan diren arren, gero eta gizon gehiago identifikatzen dira genero-berdintasunarekin eta feminismoarekin berarekin ere bai; gero eta gizonen mugimendu gehiago dago berdintasunaren alde tokiko, nazio eta nazioarte mailan (adibidez, <http://www.ahige.org/>, <http://www.redhombresigualdad.org/web/>, edo <http://www.heforshe.org/>).

Gizonak pentsamendu feministarekin identifikatzea eta inplikatzeko eta genero-berdintasuna lortzeko kezka izatea lagungarriak izan daitezke gauza batzuei balazta jartzeko edo joera berdintzaileagoak garatzeko, baita etxean rola malguagoak izateko ere. Duela gutxi ikerketa bat egin du gizarte-ikerketako diziplina anitzeko talde batek (Abril eta Cols. \_2015) aita eta ama bikoteekin eta argi geratu da bikotearen barruko faktorerik garrantzitsuenetako bat faktore ideologikoa dela, baliabide ekonomikoekin batera, eta horren bidez azaltzen eta ulertzen direla lehenengo haurra jaiotzen denetik bikotean hartzen diren dinamikak, erabakiak eta praktika berdintzaileak (Abril eta Cols, 2015). Jarrera berdintzaileek pisu handia dute beren ereduak ohiko amatasun eta aitatasun ereduetatik urrun dauden bikoteetan. Horrelakoetan gizonik gehienek beren nortasuna ez dute eraikitzen, batez ere, beren lana oinarri hartuta, emakumeak genero-arauek hausnartzen dute eta, oro har, banakoek balio bat eransten dute biek erantzukizunak berdina hartu ditzaten eta haurarekin harreman handia izan dezaten (Abril, 2015).

Beste azterketa batzuek ere azpimarratu dute berdintasunezko kokapen horren zeregina eta gizonak emakumeak ahalduzaren alde agertu dira kokapen eta praktika berdintzaileagoen aldeko aldaketak sustatzeko (Segal, 2015). Maskulinitateen azterketan eta gizonekin lana egiten duten adituek, Víctor Seidlerrek adibidez, genero-ideologian eta feminismoan sakondu dute eta behin eta berriro adierazi dute zeinen garrantzitsuak diren gizonen bizitzetan azken urteetan gertatutako aldaketak eta emakume eta gizonen harremanetan gertatutakoak ugalketa eta zainketa lanak egitean eta horren esanahian. Seidlerren esanetan, azken urteetako, eta bereziki ama eta aita azken belaunaldiko, gizartearen ezaugarria da genero-rolak zalantzan jarri direla eta forma desberdinak hartu dituztela kultura-inguruaren arabera. Feminismoak gizonen bizitzan izan duen eragina identifikatu du Seidlerrek: gizon gazteagoen belaunaldia da, feminismoak eragina izan du beraiengan eta genero-berdintasunaren inguruko ideiek ere bai; horren ondorioz, seme-alabekin harreman parekideagoak izaten saiatu dira (Seidler, 2006). Seidlerrek beste gai garrantzitsu bat ere aipatzen du, hau da, genero-ideologiak eta feminismoak zer eragin esanguratsu izan duten bikoteen bizitza intimoko negoziazioetan eta familiako sistemetan.

Hausnarketa ildo horretan bertan, Carabik eta Armengolek (Carabí eta Armengol, 2015) balioa ematen diote feminismoari lotutako hausnarketa prozesu subjektiboei eta posizionamendu ideologikoei, azken hamarkadetan egondako emakumeen ahalduzaren prozesuen eta aldaketen motortzat. Egile hauen iritziz, emakumeak izan dira gizarteko aldaketa honen eragile nagusiak feminismoaren hausnarketari eta ekintzari esker, eta hori dela eta, askoz prestatuago dauden beren buruak berriro pentsatzeko eta gizartearen duten zeregina zehazteko. Gizonak, aldiz, ez dituzte hain markatutako bizi izan emakumeen hausnarketa sakonak

eta orain harrituta daude bizitza tokatu zaien errealitate honetan. Ohiko kode maskulinoak zaharkituta geratu dira eta berriak egiteko daude (Carabí eta Armengol, 2015). Hausnarketa eta ebidentzia hauek kontuan izanda, aitek kokapen berdintzailea edota feminista hartuz gero etxeko eta zaintzako jarrera areagotu egin beharko luketela uste izatea egokia da.

### 1c.c. Zaintzei buruzko emozioak

Historikoki emozioen eta konpetentzia emozionalen azterketa ikustezina izan den arren eta garrantzirik eman ez zaion arren giza psikologiaren beste dimentsio batzuekin alderatuz gero, azterketa-eremu hau oinarrizkoa da pertsonen jarrera ulertzeko eta, ondorioz, berdintasunerantzako gizarte eraldaketa aztertu eta sustatzeko ere bai. Batetik, konpetentzia emozionalak oso lotuta daude emakumeek eta gizonek beren eguneroko bizitzan hartzen dituzten erabakiekin eta ezartzen dituzten prozesu eta loturekin eta eragin zuzena duten eguneroko bizitza horren garapenean. Bestetik, azken hamarkadetan egindako azterketa askok argi utzi dute emozioak eta hauek arautu eta modu burutsuan erabiltzeko gaitasuna lotuta daudela arrakasta pertsonal eta profesionaleko hainbat faktoreekin, oso desberdinak diren eremuak barne, hala nola, osasun fisikoa eta psikikoa, ongizatea, pertsonen arteko harreman osasuntsuak, laneko estres txikiagoa edo nagusi izateko lanpostuetarako sarbidea (Mayer, Salovey eta Caruso, 2004).

Bizitzako eta gizarteko eremu desberdinetan arrakasta izateko, konpetentzia emozionalak oso garrantzitsuak diren arren, harreman zuzena dute genero-rolekin. Dinamika hauetan funtsezko elementua da feminitate/maskulinitate dikotomiak emozionalitate/arraizionalitate dikotomiarekin duen erlazioa, eta historikoki presente dago nahiz teoria zientifikoan nahiz herri-kulturan. Erlazio honen arabera emakumeak onak dira lan emozionalean eta berez dituzten zenbait ezaugarriren ondorioz emozionalari eta zaintzei lotuta daude nahitaez. Aldiz, gizonek berez dituzten ezaugarrien ondorioz, arrazoitari eta emozioen errepresioari lotuago daude (Shields, 1995).

“Desberdintasunaren paradigma” honek emakumeen kasuan harreman zuzena eta positiboa ezartzen du harremanekin zerikusia duten konpetentzia sozioemozional jakin batzuen garapen handiagorekin, aldiz, gizonen kasuan raziozinio gaitasunekiko eta emozioen kontrolarekiko ezartzen da harremana (Shields, 1995). Emozioen bizipen bereizle hau generoaren sozializazioari lotuta dago eta emakumeek emozio negatiboen bizipen handiagoa dute, hala nola, errua, lotsa edo beldurra, neurotizismoa, porrot eta tristura sentimenduak eta emozio negatiboetan hausnartzea (Brody eta Hall, 2000). Era berean, genero-estereotipoek emakumeei etxeko funtzioak agintzen dizkietenez, koherentea da pentsatzea emozio negatibo horien bizipena handiagoa izango dela emakumeentzat hauek funtzio horiei erantzuten ez direla ari sentitzen dutenean (adibidez, gaixo dagoen haur txikia zaindu ordez, lanean ari direnean).

Gizonetan, aldiz, eragina desberdina litzateke. Batetik, genero-estereotipoek gizonei garapen emozional oso mugatua ematen die eta horrek zaildu egiten du beste pertsonari begira jartzeko konpetentzia emozionalen garapena (Brody eta Hall, 2000; Shields, 1995). Emozio hauek funtsezkoak baitira aita konprometituago baten profila garatzeko,

hala nola, adierazpen emozionala, norbere eta besteen emozioak ulertzea eta femeninotzat hartzen diren zaintzako dimentsio emozionalak onartzea; aitek beren zaintza jardueren arabera emozio hauen formak nola bizitzen diren identifikatzea funtsezkoa da, etxean inplikazio handiagorako aldaketak sustatzen jarraitzeko.

Berariazko emozioei buruzko ikerketetan ikusi denez, emakumeek emozio positiboak adierazteko joera handiagoa dute gizonek baino (Brody eta Hall, 2000). Planteamendu honekin koherentzian, emakumeek emozio positiboak modu intentsuagoan eta sarriago adierazten dituztela ikusi da, poza, zoriona, maitasuna, afektua, goxotasuna eta ongizate sentimenduak barne. Baina zaintzarekin berariaz lotutako emozioen presentziari buruzko ebidentziarik ez dago. Errua edo lotsa bezalako emozio negatiboei dagokienez ere, emakumeen puntuazioak gizonenak baino handiagoak dira (Brody, 1999; Allen eta Haccoun, 1976). Era berean, azterketa batzuen arabera alde horien ondorioz emakumeek gehiago adierazten dituzte emozio negatibo batzuk, hala nola, larritasuna eta tristura (Simon eta Nath, 2004).\_ Baina kasu honetan ere ez dakigu alde hauek berariaz nola gertatzen diren emakumeek eta gizonek hurren zaintzan duten inplikazioaren inguruan.

Azterketa honetan gai hauek aztertu dira eta, zehatz esateko, emakumeek eta gizonek beren seme-alabekin igarotzen duten denborarekiko esperimintatzen dituzten emozioak aztertu dira hiru egoeratan: seme-alabekin igarotzen den denboran, seme-alabarik gabe igarotzen den denboran eta seme-alabarik gabe egon baina bikotea funtzio hori betetzen ari den egoeratan.

## 1c.d. Identitatea eta balio pertsonalak

Gizonak berdintasunera joateko gizarte eraldaketa aztertu eta sustatzean bada azterketarako beste funtseko esparru bat ere, adierazkortasunari eta besteen zaintzari lotutako estereotipikoki femeninoak diren balio eta ezaugarriekin identifikatzea.

Diziplina psikologikoan nortasunaren kontzeptua konstruktua giltzarria da, pertsona bakoitzak norbere buruz duen ustea atzeman baitaiteke, baita gizarteko talde desberdinetako kide izateaz duen ustea ere. Nortasunaren eta auto-kontzeptuaren elementuetako bat da identitatea (eta zehatz esateko genero-identitatea), jokabidean eraginik handiena duen faktoreetako bat da eta pertsonen erantzun emozional eta ideologikoak modu garrantzitsuan zehazten ditu (Tajfely eta Turner, 1986).

Generoaren gizarte eraikuntzak eragin nabarmena du beste pertsonen zaintzarekin zerikusia duen guztian eta emakumeen eta gizonen identitatearen esparruak ere erlazio hauen eragin handia du. Oro har, genero-identitatea sexuaren arabera desberdindutako gizarte esperientzia hauen emaitza dela esan daiteke eta horiek eratzen duten banakoaren nortasuna pertsonaren gizarte testuinguruan maskulinitateak eta feminitateak duten esanahitik abiatuta. Sexuak pizgarri aldagai bezala duen eragin esparruak asko eta anitzak dira (emakume edo gizon izateak testuinguru batean duen eraginaz ari gara, eta horren arabera sineste sexual estereotipikoen araberrako erantzunak egoteaz) eta sozializazio prozesua desberdina izaten da jaiotzen denetik izan ere une horretatik bertatik neskatoak goxoak, txikiak, delikatuak edo distraituak eta mutikoak

indartsuagoak, gogorragoak, sendoagoak edo zakarragoak direla esaten baita (Rubin, Provenzano eta Luria, 1974). Eragin hauek gero eta indar handiagoa hartzen dute bizitzan zehar eta genero-identitatearen bidez nazioartekotzen dira.

Literatura zientifikoa hainbat eredu zientifiko dago genero-identitatea aztertzeko. Eredurik hedatuenetako baten arabera, identitate hau funtzio adierazkor eta instrumentalen arabera definitzen da (Bem, 1974; Spence eta Helmreich, 1978). Hori dela eta, oro har eta genero-estereotipoak daudelako, gizonak estereotipikoki maskulinoak diren identitate-ezaugarriak garatzeko joera dute (instrumentalak edo agentikoak ere esaten zaienak garatzekoa), hala nola, anbizioa, lehiakortasuna edo asertibitatea. Aldiz, emakumeek estereotipikoki femeninoak diren identitate-ezaugarriak garatzeko joera handiagoa dute (adierazkorak edo komunalak ere esaten zaienak garatzekoa), hala nola, enpatia, sentsibilitatea edo besteren beharreganak orientazioa.

Oro har gizonak identitateko ezaugarri adierazkorak - eta zaintza jardueri zuzen lotutakoak- garatzeko joera txikiagoa duten arren, ezaugarri horien identifikazioa ez du inondik ere pertsonaren sexu biologikoak zehazten, baizik eta faktore pertsonal, sozial eta esperientzial ugariaren elkarrekintza konplexu baten mende dago. Errealitate horren zuzeneko inplikazioa da eta argi dago nahiz gizonak nahiz emakumeak modu oso "maskulinoan" edo modu oso "femeninoan" ibili daitezkeela aritzen diren testuinguru ezaugarri horien arabera definituta badago. Adibidez, lan eremua batez ere gizonen mende dagoenez eta maskulinitatea hein oso handian berresten denez eremu horretan (Connell, 2005; Collinson eta Hearn, 1996), nahiz gizonak nahiz emakumeak identitate-ezaugarri instrumentalak eta buruzagitza-estilo estereotipikoki maskulinoak hartzeko joera izaten dute (Schein, Ruediger, Lituchy eta Jiang, 1996).

Etxeko eta zaintza lanei dagokienez, bereziki beharrezkoa da gizonak beren identitateko ezaugarri adierazkorak sartzea, jokabidean garrantzi oso handia duen elementu psikologikoa baita eta zaintzarekin lotutako funtzioak errazago hartzen baitira horrela (beste pertsona batzuk fisikoki eta emozionalki zaindu, maitasuna adierazi, laztandu afektua adierazteko, etab.). Honi lotuta, badirudi estereotipikoki maskulinoa den identitate maskulino mota batekin bat egiten badute gizonak, joera sexual handiagoari lotuta dago (Spence eta Buckner, 2000), beste pertsona batzuk zaintzeko joera txikiagoa dute (Blazina, 2001), norbere eta besteren emozioak adierazteko konplexutasun txikiagoa (Gartzia, Aritzeta, Balluerka eta Barberá, 2012), eta emakumen eta gizonen arteko berdintasuna hein txikiagoan onartzen dute (Morgan, 2006).

Hauek horrela, azterketa honetan aita eta ama parte hartzaileen identitateen azterketa aztertu beharreko elementu nagusizat planteatzen dugu. Era berean, bikoteko bi kideek adierazkortasuna (adibidez, seme-alabei kalitatezko denbora eskaintzea) vs. instrumentala (adibidez, norbere helburu profesionalak lortzea) gaiari lotutako faktoreei buruz bikoteko bi kideek zer lehentasun adierazten dituzten sakon ikusi nahi dugu, baita adierazkortasunari (besteei lagundu, esaterako) vs. instrumentalitateari (lorpen pertsonalak izan, esaterako) lotutako helburu orokorragoen inguruan zer lehentasun adierazten dituzten ere.



## 1d. Ikerketaren helburuak

Aurrez esan bezala, aurkeztu dugun proiektu hau erantzunkidetasunaren eta gizonak etxeko eta zaintza lanetan inplikatzearen errealitatean sakontzeko beharragatik sortu zen, batez. Zehatz esateko, pertsonen jokabidean dimentsio sozialaren eta psikologikoen arteko elkarrekintza kontuan izango zuen azterketa integratzailearen ikuspegitik abiatu eta azterketa honen xedea izan da bikotean bizi diren emakume eta gizonen pertzepzio subjektiboetan eta erantzunkidetasunaren zaintzan sakontzea, baita bizipen horiei lotutako balizko faktoreak identifikatzea ere, aitek gaur egungoa baino erantzunkidetasun eta inplikazio handiagoa izateko lanerako bideak eta esku hartzeoak identifikatu ahal izateko.

Helburu horiek lortzeko, azterketa hau genero-estereotipoen eta bikoteko harremanen ikuspegi dinamikotik abiatzen da eta aitek etxeko lanetan duten esku hartze mugatuaren atzean dauden faktore sozial eta psikologikoen azterketan sakontzen du, hobetzeko balizko eremuak identifikatu asmoz. Bestalde, gaiaz dugun egungo ezagutzari ekarpenak egiteko, errealitate konplexu honen azterketan pertzepzioen eta elementu psikosozial hainbaten azterketa sartzea planteatu da, elementu hauekiko bikoteko bi kideetan alderik handiena non dagoen identifikatzeko: balioak, emozioak eta pertzepzioak. Bestalde, dimentsio psikosozial hauek dimentsio *estruturalekin* nola lotuta dauden aztertu nahi da (adibidez, lanerako orria, heziketa-maila, lanpostua, soldata, etab.).

Hau da, gizonak jokoera berdintzaileagoak garatzeko zer elementu sozial, ideologiko edota emozional (faktore psikosozialak) diren mesedegarriak ikusi nahi da. Jarraian berriazko edukien laburpena dago:

**1. HELBURUA** - *bikotean bizi diren amen eta aiten balio, emozio eta pertzepzioetan dauden aldeak aztertu*

**2. HELBURUA** - *Gizonek etxeko eta zaintza lanak egiteko garapenarekin edo oztopoarekin lotutako aldagai psikosozial giltzarri batzuk identifikatu*

**3. HELBURUA** - *Bikote parte-hartzaileei diagnostikorako eta hausnarketarako tresna bat eskaini, hobetzeko arloak eta ekiteko jarraibideak identifikatzeko*

## **Diseinua eta metodologia**

## 2.- Diseinua eta metodologia

### 2a. Ikerketaren diseinua

Bere  
 buruaz segurtasun txikia/handia ( $t= -2.49$ ;  $g.l.= 112$ ;  
 $p=0.014$ ).

| Emakumeak         |      | Gizonezkoak       |      |
|-------------------|------|-------------------|------|
| Batez<br>bestekoa | e.e. | Batez<br>bestekoa | e.e. |
| 4.28**            | .067 | 3.89**            | .078 |
| 4.16              | .062 | 4.13              | .062 |
| 4.41**            | .056 | 4.00**            | .075 |
| 4.18              | .061 | 4.09              | .060 |
| 3.04              | .097 | 3.20              | .109 |
| 3.69              | .068 | 3.74              | .082 |
| 3.63*             | .079 | 3.85*             | .072 |
| 2.91              | .054 | 3.04              | .060 |

#### 3.4.1.1 taula. Nortasunaren ezaugarriak (1etik 5erako eskala)

|           | Besteez arduratzeko gaitasunik<br>ez/gaitasun handia                                   |
|-----------|--|
| Femeninoa | Desatsegina/Oso atsegina<br>Besteen sentimenduez ohartzen ez dena/oso<br>ohartzen dena |
|           | Ez ulerkorra/Oso ulerkorra   |
| Masculino | <del>Ez ulerkorra/Oso ulerkorra</del>  |
| Oa        | Erraz ematen dut amore/Inoiz ez dut ematen<br>amore                                    |
|           | Bere buruaz segurtasun txikia/handia<br><b>Gutxiago/gehiago sentitzen da</b>           |

\* Gizonen eta emakumeen arteko alde esanguratsua % 1ean

\*\* Gizonen eta emakumeen arteko alde esanguratsua % 2.5ean

Aurreko zortzi item horiek oinarri hartu eta bi eskala sortu ziren estereotipikoki femeninoak (adierazkorrak) eta maskulinoak (instrumentalak) ziren item talde bakoitzeko puntuazioen batez bestekoetatik abiatuta. Bi eskalek Cronbachen Alfa balio altuagoak eman zituzten alor adierazkorrean (0.75 emakumeentzat eta 0.77 gizonentzat) instrumentalean baino (0.54 emakumeentzat eta 0.62 gizonentzat). 3.4.1.2 taulako emaitzetan ikusten den bezala, emakumeen eta gizonen bi taldeen arteko aldeak espero bezalakoak izan dira, eta alde esanguratsuak dira, dela identitate adierazkorrean adierazlearen kasuan ( $t= 3.47$ ;  $g.l.= 107$ ;  $p<0.01$ ) dela identitate instrumentalean, nahiz eta azkeneko honetan gure muga % 5era igo beharko genukeen baieztapen hori egiteko ( $t= -2.03$ ;  $g.l.= 110$ ;  $p=0.044$ ).

## 3.4.1.2 taula. Adierazle adierazkorrak eta instrumentalak (1etik 5erako eskala)

|                                     | Emakumeak      |      | Gizonezkoak    |      |
|-------------------------------------|----------------|------|----------------|------|
|                                     | Batez bestekoa | e.e. | Batez bestekoa | e.e. |
| Ezaugarri adierazkorren adierazlea  | 4.27*          | .046 | 4.02*          | .053 |
| Ezaugarri instrumentalen adierazlea | 3.31**         | .049 | 3.46**         | .057 |

\* *Gizonen eta emakumeen arteko alde esanguratsua % 1ean*\*\* *Gizonen eta emakumeen arteko alde esanguratsua % 5ean*

## 3.4.2 Bizitzan garrantzia ematen zaien xedeak

1etik (garrantzi txikia) 7rako (oso garrantzitsua) eskala erabiliaz, beren bizitzan zortzi helburuko zerrenda batek zer garrantzi zuen erantzun behar zuten; horietatik hiru guztien onurarakoak ziren - *Besteei lagundu*, *Besteez arduratu*, *Besteez kezkatu*- eta beste bostak banakoak: *Estatua izan*, *Independentea izan*, *Lorpenak eduki*, *Boterea lortu*, *Lehiatu*. Zortzi xedeak nahastuta zeuden galdesortan, aurrez aipatutako eremua (baterakoa edo banakoa) identifikatu gabe.

3.4.2.1 taulan ikustenenez, emakumeek gizonen baino puntu gehiago dituzte baterako xedeetan eta alde guztiak esanguratsuak dira: *Besteei lagundu* ( $t= 3.52$ ;  $g.l.= 113$ ;  $p<0.01$ ), *Besteez arduratu* ( $t= 3.28$ ;  $g.l.= 113$ ;  $p<0.01$ ), *Besteez kezkatu* ( $t= 2.78$ ;  $g.l.= 113$ ;  $p<0.01$ ). Banako xedeetan, eta talde honetan dauden bi alde esanguratsuei dagokienez, gizonak emakumeen gainetik daude argi eta garbi *Lehiatun* ( $t= -3.02$ ;  $g.l.= 111$ ;  $p<0.01$ ), eta emakumeak gizonen gainetik *Independente izatean*, nahiz eta esanguratasunaren maila % 5era igo behar hala hartu ahal izateko ( $t= 2.19$ ;  $g.l.= 112$ ;  $p=0.031$ ).

## 3.4.2.1 taula. Bizitzan garrantzia ematen zaien xedeak (1etik 7rako eskala)

|                    | Emakumeak      |      | Gizonak        |                  |
|--------------------|----------------|------|----------------|------------------|
|                    | Batez bestekoa | e.e. | Batez bestekoa | e.e.             |
|                    |                |      | <i>Banakoa</i> | <i>Baterakoa</i> |
| Besteei lagundu    | 5.72*          | .087 | 5.29*          | .102             |
| Besteez arduratu   | 5.64*          | .084 | 5.15*          | .109             |
| Besteez kezkatu    | 5.87*          | .094 | 5.48*          | .102             |
| Statusa izan       | 3.42           | .136 | 3.43           | .135             |
| Independentea izan | 5.86**         | .106 | 5.52**         | .110             |
| Lorpenak izan      | 5.28           | .100 | 5.16           | .121             |
| Boterea lortu      | 3.13           | .140 | 3.04           | .152             |
| Lehiatu            | 3.06*          | .141 | 3.58*          | .167             |

\* *Gizonen eta emakumeen arteko alde esanguratsua % 1ean*\*\* *Gizonen eta emakumeen arteko alde esanguratsua % 5ean*



Baloratutako xedeen bi alorren laburpen gisa, bi adierazle sortu dira puntuazioen batez bestekoa oinarri hartuta, xedeen talde bakoitzean. Egindako bi adierazle horiek 0.75 baino gehiagoko Cronbachen Alfako balioak eman zituzten kasu guztietan. Baterako xedeen adierazleari dagokionez, emakumeen kasuan 0.79 da eta gizonen kasuan 0.87; banako xedeen adierazleei dagokienez, emakumeena 0.75 da eta gizonena 0.77. 3.4.2.2 taulan ageri da adierazle horiek sortzean aldeak garbi mantendu direla baterako xedeen/adierazkorren kasuan ( $t= 3.66$ ;  $g.l.= 113$ ;  $p<0.01$ ), aldiz, alderik ez dago banako xedeetan.

**3.4.2.2 taula. Bizitzan garrantzia ematen zaien xedeak (1etik 7rako eskala)**

|                 | Emakumeak      |      | Gizonezkoak    |      |
|-----------------|----------------|------|----------------|------|
|                 | Batez bestekoa | e.e. | Batez bestekoa | e.e. |
| Baterako xedeak | 5.75*          | .075 | 5.30*          | .093 |
| Banako xedeak   | 4.14           | .089 | 4.14           | .101 |

\* *Gizonen eta emakumeen arteko alde esanguratsua % 1ean*

### 3.4.3 Lehentasuna: lana edo familia

Galdesortan hiru item zeuden eta bizitzako lehentasunen bikote hauek jarri ziren bederatzitik puntuako eskala batean bi muturrak banatuaz. Lehentasunen bikote hauek zeuden:

1. *Familia izan vs Lanbide bat izan*
2. *Seme-alabei kalitatezko denbora eskaini vs Aseko nauen lana izan*
3. *Nire helburu profesionalak lortu vs Familia zoriontsua eta elkar ulertzen duena izan*

Erantzunak eskalako mutur bakoitzarekiko dagoen gertutasuna edo urruntasuna adierazten du; 1ak ezkerrean dagoenari ematen dio lehentasuna eta 9tik zenbat eta gertuago egon, eskuinekoari ematen zaio lehentasuna. Ikusten denez, hirugarren itemaren lehentasunak aurreko biek alderatuz gero alderantzikatuta daude nahita.

Banako bakoitzak bere burua ebaluatzeaz gain, bere bikotea ere ebaluatu egin zuen. Banakoaren autopertzepzioa eta bikotearekiko heteropertzepzioa definitu genituen horrela. Aurreko ataletan bezala, oraingo honetan ere indize bakarria eraiki zen hiru itemetako erantzunak konbinatuaz hiruetako batez besteko puntuazioak oinarri hartuta eta aurrez hirugarren itemeko puntuazioa alderantzikatu zen, hiru puntuazioak norabide berekoak izateko. Indize honen emaitzetan 0.7tik gorako Cronbachen Alfa balioak daude nahiz autopertzepzioan (0.71 emakumeentzat eta 0.82 gizonentzat) nahiz heteropertzepzioan (0.87 emakumeentzat eta 0.73 gizonentzat).

**3.4.3.1 taula. Bizitzan garrantzia ematen dioten helburuak (1etik 9rako eskala)**

|   | Emakumeak   |              | Gizonezkoak |              |
|---|-------------|--------------|-------------|--------------|
|   | Autoper.    | Heteroper.   | Autoper.    | Heteroper.   |
| Familia vs Lanbidea                           | 3.47        | 3.82*        | 3.16        | 3.09*        |
| Seme-alabekin denbora vs Lanak ase nazala     | 3.14        | 3.70*        | 2.99        | 2.82*        |
| Helmuga profesionalak vs Familia zoriontsua   | 7.20        | 6.61*        | 7.43        | 7.45*        |
| <b>Lehentasuna Familia vs Lana adierazlea</b> | <b>3.17</b> | <b>3.71*</b> | <b>2.95</b> | <b>2.88*</b> |

\* *Gizonen eta emakumeen arteko alde esanguratsua % 1ean*

3.4.3.1 taulako emaitzek egoera interesgarri bat erakusten digute. Denek familiaren alde egiten duten arren beti, autopertzepzioan gizonak familiaren lehentasunetik gertuago sailkatzen dira emakumeak baino. Baina alde hauetako bat bera ere ez da esanguratsua estatistikoki. Heteropertzepzioari begiratzuz gero, egoera oso desberdina da. Gizonen erantzunei begiratzuz gero, beren bikoteak familiarekin lotuago ikusten dituzte bikote horiek beren buruak ikusten dituzten baino, eta emakumeen ustez beren bikoteak ez daude familiaren lehentasunetik hain gertu bikote horiek beren buruak familiarik gertuago ikusten dituzten arren. Hiru itemetako batean eta horiek oinarri hartuta egindako adierazlean gertatzen da hau. Are gehiago, heteropertzepzioan dauden alde guztiak estatistikoki esanguratsuak dira: *Familia izan vs Lanbidea izan* ( $t= 2.73$ ;  $g.l.= 103$ ;  $p<0.01$ ), *Nire seme-alabei kalitatezko denbora eskaini vs Aseko nauen lana izan* ( $t= 3.53$ ;  $g.l.= 103$ ;  $p<0.01$ ), *Nire helburu profesionalak lortu vs Familia zorientzua eta elkar hartua izan* ( $t= -3.53$ ;  $g.l.= 106$ ;  $p<0.01$ ) eta konbinatutako adierazlea ( $t= 3.71$ ;  $g.l.= 98$ ;  $p<0.01$ ).

### 3.5.1 Denbora erabilera

Familiako bizitzako jardueren banaketari esker, erantzunkidetasunari buruzko profil pertsonalaren argazki interesgarria atera daiteke. Horretarako, inkestatutako bakoitzak hamazazpi jarduerari eskaintzen zien denbora portzentajea adierazi behar zuen, baita bere bikoteak eskaintzen diena eta gainerako portzentajea zatitu egin behar zuen aitonaren, amonaren, zeregin horretarako kontratatutakoaren eta beste senitartekoen artean, adibidez, emakumeen ahizpen artean. 3.5.1 taulak bikoteko kide bakoitzak adierazitako portzentajeak ditu, dela norbere buruarentzat dela bere bikotearentzat adierazitakoak. Emaitza hauei esker, bikoteko kide bakoitzak aitortutako balioen portzentajearen dauden aldeak kalkulatu daitezke, baina kide batek bere buruaz dionaren eta bere bikoteak esaten duenaren arteko aldeak ere alderatu daitezke. 3.5.1 taulan azkeneko hiru zutabeetan daude taulari dagozkion ordenan dauden alde hauek:

- 1-) Jarduera bakoitzean emakumeek aitortutako portzentajearen eta gizonek aitortutakoaren arteko aldea. Alde positiboek adieraziko lukete, emakumeek gizonek aitortutakoa baino gehiago egiten dutela aitortzen dutela.
- 2-) Emakumeek aitortutako portzentajearen eta gizonen ustez beren bikoteek egiten dutenaren arteko aldea. Alde positiboek esan nahiko lukete emakumeek beren bikoteek uste dutena baino gehiago egiten dutela.
- 3-) Emakumeen ustez beren bikoteek egiten dutenaren eta gizonak aitortzen duten portzentajearen arteko aldea. Alde negatiboek esan nahiko lukete emakumeek uste dutena baino gehiago aitortzen dutela gizonek.


3.5.1 taulan grisez azpimarratu dira estatistikoki % 1ean esanguratsuak diren aldeak.

Emaitzen arabera, emakumeek beren buruei gizonek baino portzentaje handiagoak ematen dizkiete *Zorua garbitu eta Seme-alabekin broman eta jolasean ibili* jardueretan izan ezik, nahiz eta alde biak esanguratsuak ez izan. Gainerako alde guztiak emakumeen aldeko positiboak dira eta bi bakarrik dira esanguratsuak ez direnak: *Erosketak egin eta Haurrak eskolaz kanpoko jardueretara eramanez*. 3.5.1.1 grafikoan portzentajeak ageri dira emakumeek eskaintutako portzentajearen arabera antolatuta. Emakume eta gizonen artean alderik handiena dagoen jarduerari dagokienez, hauek nabarmentzen dira: *Haurrentzat arropa erostera joan, Arropa garbitu, Sukaldean egin eta Haurrak sendagilearengana eramanez*.

3.5.1.1 taula. Hainbat jarduerari eskainitako portzentajea


|  | Emakumeak |         | Gizonezkoak |         | Aldeak               |         |         |
|--|-----------|---------|-------------|---------|----------------------|---------|---------|
|  | Neu       | Bikotea | Neu         | Bikotea | Emakumek Gizonezkoak |         |         |
|  | (1)       | (2)     | (3)         | (4)     | (1)-(3)              | (1)-(4) | (2)-(3) |
| Etxeko lanak egin                            | 56.64     | 31.15   | 37.14       | 52.81   | 19.50                | 3.84    | -6.00   |
| Arropa garbitzea                             | 70.66     | 32.70   | 35.44       | 66.67   | 35.22                | 3.99    | -2.75   |
| Zorua garbitu                                | 51.04     | 50.36   | 56.89       | 42.72   | -5.84                | 8.32    | -6.53   |
| Janaria prestatzea                           | 62.37     | 38.59   | 41.34       | 56.36   | 21.03                | 6.02    | -2.75   |
| Etxea garbitzea                              | 55.42     | 33.00   | 37.03       | 53.91   | 18.39                | 1.52    | -4.03   |
| Erosketak egitea                             | 56.09     | 45.23   | 50.51       | 51.08   | 5.59                 | 5.01    | -5.27   |
| Haurrak zaindu                               | 57.58     | 36.33   | 38.33       | 55.47   | 19.25                | 2.12    | -2.01   |
| Maitasuna eta babes emozionala eman          | 53.46     | 42.18   | 45.72       | 51.66   | 7.74                 | 1.79    | -3.54   |
| Haurrei etxeko lanetan lagundu               | 55.07     | 42.87   | 39.77       | 54.62   | 15.30                | 0.45    | 3.10    |
| Haurrentzako arropa erostera joan            | 82.70     | 24.63   | 25.82       | 76.57   | 56.88                | 6.13    | -1.20   |
| Haurrentzako bazkaria/afaria prestatu        | 60.60     | 41.75   | 43.62       | 55.70   | 16.99                | 4.90    | -1.86   |
| Haurrak bainatu eta jantzi                   | 61.34     | 39.67   | 44.40       | 49.74   | 16.94                | 11.60   | -4.73   |
| Haurrak sendagilearengana eraman             | 63.58     | 38.93   | 43.19       | 61.02   | 20.38                | 2.56    | -4.26   |
| Haurrak parkera eraman                       | 55.75     | 43.41   | 44.94       | 51.21   | 10.81                | 4.54    | -1.52   |
| Haurrak eskolaz kanpoko jardueretara eraman  | 56.52     | 42.65   | 48.08       | 54.13   | 8.44                 | 2.39    | -5.43   |
| Etxean diziplina mantendu                    | 56.70     | 42.57   | 45.26       | 50.18   | 11.44                | 6.53    | -2.70   |
| Broman eta jolasean aritu gure seme-alabekin | 48.43     | 48.35   | 50.37       | 47.53   | -1.94                | 0.91    | -2.02   |

*Grisez azpimarratutako zifrek % 1eko alde esanguratsua adierazten dute*



3.5.1.1 grafikoa. Jarduera zenbaiti eskainitako denboraren portzentajea emakumeen portzentajearen arabera ordenatuta.

Bikoteko kide bakoitzak zer egiten duen eta bere bikoteak uste duena alderatzean, argi dago patroia bat dagoela eta bien ustez bikoteak uste duena baino gehiago egiten dutela, salbuespen bakarra *Haurrei etxeko lanetan lagundu* da, gizonek emakumeek uste dutena baino apur bat gutxiago egiten dutela esaten baitute. Emakumeek egindako jardueretan alderik handienak *Haurrak bainatu eta jantzi* jardueran daude, hamar puntu baino gehiagoko aldea dago emakumeek esaten dutenaren eta beren bikoteek uste dutenaren artean eta zortzi puntu baino gehiagoko aldea *Zorua garbitu* jardueraren kasuan. Gizonek egindako jarduerentzako aldeak txikiagoak dira oro har, eta alderik handienak *Zorua garbitu* (% 6.53) eta *Etxeko lanez arduratu* (% 6) jardueretan daude; horietan dago alderik handiena emakumeek uste dutenaren eta gizonen esandakoaren artean. 3.5.1.2 grafikoak jarduera bakoitzerako aztertutako aldeak ditu, emakumeek egindako jarduerentzat lortutako aldearen neurriaren arabera ordenatuta.



3.5.1.2 grafikoa. Adierazitako portzentajearen eta bikoteak emandakoaren arteko aldeak, emakumeentzako aldean arabera ordenatuta.

Datu hauek oinarri hartuta aztertu daitezkeen beste gaietako bat da jardueretako zein uzten den hein handiagoan edo txikiagoan beste pertsonen esku, bikoteko kideak ez direnen esku. 3.5.1.2 taulako emaitzen arabera, beste pertsona batzuen laguntzarik handiena *Etxea garbitu* eta *Etxeko lanez arduratu* jardueretan dago, emakumeak edo gizonak adierazitako denboraren % 10 baino gehiago eskuordetzen baita. Emakume eta gizonak adierazitako portzentajeetan aldeak egon daitezkeen arren, estatistikoki alde horiek ez direla esanguratsuak ikusi da.

3.5.1.2 taula. Bikoteko kideak ez direnek betetzen duten denboraren portzentajea, emakumeek aitortutakoaren arabera

|  | Emakumeak | Gizonezkoak |
|--|-----------|-------------|
| Etxea garbitu  | 14.30     | 12.45       |
| Etxeko lanak egin  | 13.88     | 11.64       |
| Haurrak zaindu   | 6.82      | 6.20        |
| Arropa garbitu   | 6.56      | 8.05        |
| Haurrentzako bazkaria eta afaria prestatu                | 5.47      | 2.39        |
| Janaria prestatu   | 4.55      | 3.30        |
| Maitasuna eta babes emozionala eman                      | 4.36      | 2.62        |
| Haurrei etxeko lanak egiten/jolas hezitzaileetan lagundu | 4.08      | 5.71        |
| Haurrak parkera eraman                                   | 3.74      | 4.30        |
| Haurrak eskolaz kanpoko jardueretara eraman              | 3.27      | 0.78        |
| Broman eta jolasean aritu gure seme-alabekin             | 3.22      | 2.45        |
| Haurrak bainatu eta jantzi                               | 3.08      | 6.68        |
| Haurrentzako arropa erostera joan eta etxean ordenatu    | 2.79      | 2.85        |
| Erosketak egin   | 2.31      | 2.58        |
| Lurra garbitu  | 2.16      | 2.07        |
| Haurrak sendagilearengana eraman                         | 1,99      | 0,19        |
| Etxean diziplina mantendu                                | 1,49      | 4,56        |

### 3.5.2 Denbora erabileren aldeak alderatuta

Aldagai bat sortu da zeregin bakoitzean inkesta erantzun duenak eta bere bikoteak eskainitako portzentajea adierazteko emakume eta gizonen taldeetan. Balio positiboak esan nahi du, erantzun duenak bere bikoteak baino gehiago egiten duela eta alderantziz. Espero dena da emakumeentzta balioak positiboak izango direla eta gizonentzat negatiboak. 3.5.2.1 taulan alde hauen batez bestekoak daude emakume eta gizonentzat, batez bestekoen errore estandarrekin batera. Balio bakoitza oinarri hartu eta test bat egiten da estimatutako alde zero ez den beste balio esanguratsu bat ote den kontrastatzeko, hau da, balio bakoitzean biek zeregin horretan denbora berdina igarotzen dutela batez beste uste ote daitekeen ikusteko. Alde ez esanguratsu hauek grisez azpimarratu dira.


Aurrez uste bezala, emakumeen artean aldean balio positiboak dira nagusi, *nik bikotekideak baino gehiago egiten dut*, aldiz gizonetan balio negatiboak daude, *nik bikotekideak baino gutxiago egiten dut*. Bi zereginetan emakumeek eta gizonek ez dute alderik ikusten: *Erosketak egin eta Gure seme-alabekin broman eta jolasean ibili*. Beste zereginetan ikuspegia desberdina da. Gizonen arabera ez legoke batez beste alderik zeregin hauetan: *Haurrak bainatu eta jantzi*, *Haurrak eskolaz kanpoko jardueretara eraman* eta *Haurrak parkera eraman*. Aldiz, emakumeen ustez zeregin hauetan gizonek baino gehiago egiten dute modu esanguratsuan. Emakumeek zeregin batean dute gizonetikiko aldea, *Lurra garbitzen*, ez dute beren bikoteekiko alde esanguratsurik ikusten nahiz eta gizonek beren bikotekideek baino denbora gehiago igarotzen dutela uste izan.

**3.5.2.1 taula. Zeregin bakoitzari eskaintzen diodan denboraren eta bikotekideak eskaintzen dionaren portzentajeen arteko aldea**

|  | Emakumeak      |      | Gizonezkoak    |       |
|--|----------------|------|----------------|-------|
|  | Batez bestekoa | e.e. | Batez bestekoa | _a.a_ |
| Haurrentzako arropa erostera joan eta ordenatu | 47,96          | 3,21 | -45,50         | 3,31  |
| Arropa garbitu                                 | 30,66          | 5,44 | -25,06         | 4,69  |
| Etxeko lanak egin                              | 23,82          | 4,12 | -14,67         | 4,23  |
| Janaria prestatu                               | 20,69          | 5,17 | -14,03         | 5,12  |
| Haurrak zaindu                                 | 20,53          | 3,72 | -17,14         | 3,83  |
| Haurrak sendagilearengana eraman               | 20,15          | 4,12 | -16,67         | 4,50  |
| Etxea garbitu                                  | 19,70          | 2,81 | -16,31         | 2,95  |
| Haurrak bainatu eta jantzi                     | 17,58          | 2,07 | -5,57          | 1,76  |
| Etxean diziplina mantendu                      | 13,38          | 2,99 | -4,91          | 3,09  |
| Haurrentzako bazkaria eta afaria prestatu      | 12,24          | 4,48 | -11,40         | 4,00  |
| Maitasuna eta babes emozionala eman            | 11,28          | 4,79 | -5,95          | 4,29  |
| Haurrei etxeko lanetan lagundu                 | 11,23          | 3,46 | -14,76         | 3,86  |
| Haurrak eskolaz kanpoko jardueretara eraman    | 10,98          | 4,09 | -5,26          | 4,02  |
| Haurrak parkera eraman                         | 9,44           | 2,99 | -5,83          | 3,00  |
| Erosketak egin                                 | 8,86           | 3,67 | -0,14          | 4,07  |
| Broman eta jolasean aritu gure seme-alabekin   | 0,09           | 2,32 | 2,50           | 1,84  |
| Lurra garbitu                                  | -1,06          | 2,57 | 13,51          | 2,08  |

*Grisez azpimarratuta zero ez diren balio esanguratsuak  $p > \% 1$  kasuetan*

3.5.2.1 grafikoak emaitza horiek berak ditu, eta interpretazioa osatzeko, emakumeek hautemandako aldearen arabera ordenatu diran zeregin desberdinak.



**3.5.2.1 Zeregin batzuei eskainitako denboran dauden aldeak bikotekidearekiko, gizonek adierazitakoaren arabera eta bikoteak adierazitako lan-tipologiaren arabera, denbora-portzentajeetan adierazita.**

Aitak eta erantzunkidetasuna - - 2016ko emaitzen txostena

Kontuan izanda zeregin desberdinetan igarotzen den denbora lanean igarotzen denaren mende egon daitekeela, bikoteen tipologia bat sortu genuen hiru mailatan eta eskainitako denborari buruz ordena-eskala bat egin genuen goraka eta ordena honetan: *langabetua, lanaldi partziala eta lanaldi osoa*:

1. *tipologia*: emakumeak gizonak baino lanaldi handiagoa dauka
2. *tipologia*: biek denbora berdina igarotzen duten lanean
3. *tipologia*: emakumeak gizonak baino lanaldi txikiagoa dauka

Argi geratu behar da, adibidez, 2, tipologian sartuko liratekeela bi kideek lanaldi osoa duten bikoteak, baina baita biek lanaldi partziala dutenak edo langabezia daudenak ere bai. Bikoteen tipologia hori eraiki ondoren, laginean lau bikote ditugu 1. tipologian, berrogeita hemeretzi 2. tipologian eta berrogeita hamabi 3. tipologian.

Zeregin bakoitzean hiru bikote mota bakoitzerako kalkulaturako aldean batez bestekoak kalkulatu dira emakumeen talderako eta gizonen talderako. Emaitzak bi grafikotan daude banatuta, bata emakumeena da eta bestea gizonena, 3.5.2.2 eta 3.5.2.3 grafikoen interpretazioa argiago izan dadin, hurrenez hurren. "Emakumeak" izeneko grafikoen Y ardatzeko 0 gaineko puntuazioek (positiboak) adierazten dute emakumeek bikotekideek baino gehiago egiten dutela esaten dutela, aldiz, 0 azpikoek (negatiboak) adierazten dute bikotekideek (gizonek) gehiago egiten dutela. "Gizonak" izeneko grafikoen Y ardatzeko 0 gaineko puntuazioek

(positiboak) adierazten dute gizonek beren bikotekideek (emakumeek) baino gehiago egiten dutela adierazten dutela,



aldiz, 0 azpikoek (negatiboek) adierazten dute bikotekideek (emakumeek) gehiago egiten dutela. Bi grafikoetan zereginen ordenaren erreferentzia da lanaldi berdina duten bikoteen kasuan emakumeentzako dagoen aldean ordenamendua. Dena dela, ordena da arbitrarioa da eta ez du eraginik emaitzen interpretazioan. Interpretatzeko, bi grafikoak batera begiratzea da interesgarria, aurrerago agertzen diren bezala.

Hasteko, emakumeen grafikoan balio positiboak direla nagusi ikusten da, aldiz, gizonenean negatiboak dira nagusi; biak bat datoz kasurik gehienetan azkeneko erantzukizuna emakumeek hartzen dutela uste izatean. Oro har, emakumeek karga handiagoa hartzen dute hainbat zereginetan. 1. motako bikoteen kasuan (marra berdea), emakumeen grafikoan eremu negatiboan kokatzeko joera du marrak, aldiz, 2. motako bikoteen marra (laranja) emakumeentzako kokapen positiborako eta gizonentzako kokapen negatiborako joeran dago; amaitzeko, 3. motako bikoteen marra (urdina) emakumeentzako joera positiboagoenetan dago eta gizonentzako negatiboan. Datuek erabateko koherentzia dute espero zitekeenarekin. Marrak ordena koherentean daude, beti ere kolore berde, laranja eta urdinen ordenan, nahiz eta grafiko bakoitzean aurkako zentzuan egon, jakina. Gogoan izan behar dugu zereginei eskaintzen zaien denboran dauden desberdintasunez ari garela; ondorioz, ordena alderantzikatu egiten da grafikoa emakumeen gunean (gizonek baino denbora gehiago eskaintzen dute) edo gizonenean (emakumeen baino denbora gutxiago eskaintzen dute) irakurri. Aldean handiagoak dira oro har, bikoteko bi kideek lanari eskaintzen dioten denboran alde handiagoa dagoen heinean.


Emaitza hauek sakonago ikusi eta bikote moten arteko alde horiek emaitzetan egiaz zer eragin duten aztertu zen ANOVA eredu bat ezarriaz behatutako aldeetan. Hau da, kolore desberdinetako marren artean dauden alde horiek laginaren osaerak duen ausazko osagaiagatik izan daitezke soilik. Gogoan izan behar dugu 1. motako bikoteentzat egindako estimazioak 4 behaketarekin baino ez direla egiten eta, ondorioz, beste bi motatako bikoteei egindakoek baino lagin-akats handiagoa izan dezaketela. Azken finean, emakumeen gainkarga hori lanari eskaintzen dioten denboragatik ote den hein batean ikusi nahi da.

Emakumeen taldeak aztertuz gero, alde hauek % 1 esanguratsuek dira (grafikoan ‘++’ ikurra dute) bi kasutan: *etxeko lanak eta zorua garbitzea*. Esanguratasuna % 5era igoz gero (grafikoan ‘+’ ikurra), ondorio bera da beste kasu hauetan ere: *haurrak ziandu, medikuarengana eraman, erosketak egin eta janaria prestatu*. Honek esan nahi du gainerako kasu guztietako aldeak laginaren osaeraren ausazkotasunagatik izan daitezkeela.


Gizonen taldean hiru alde esanguratsu daude % 1ean: *arropa garbitu, haurrak zaindu eta etxeko lanak*. Berrito ere esanguratasuna % 5era eramanez gero, hau da, gure ondorioen errore marjina % 1etik % 5era eramanez gero, alde esanguratsuen talde honetan sartu daitezke beste zeregin hauek ere: *etxea garbitu, sendagilearengana eraman, janaria prestatu, erosketak egin eta zorua garbitu*.

Ondorio hauetan bi zeregin nabarmendu behar dira, gizonek bereziki emakumeen esku uzten baitute gainkarga bat bikote mota dena delakoa izan arren: *diziplina mantendu eta maitasuna eta babes emozionala eman*. Bi grafikoetan hiru marrek bat egiten dute nahiz eta gizonek emakumeen

gainkarga hori gizonen azpitik jarri. Beraz, emaitzek emakumeen zereginen gainkargaren gaizki ulertutako finkapena adierazten dute, nahiz eta kasu askotan ezin azaldu bikoteko kide bakoitzak lanean igarotzen duen denbora desberdina kontuan izanda ere.



3.5.2.2 Bikotekidearekiko aldeak zeregin zenbaiti eskainitako denboran, emakumeek adierazitakoaren arabera eta bikotearen lan-tipologiaren arabera, denbora-portzentajeetan adierazita.



3.5.2.3 Zeregin batzuei eskainitako denboran dauden aldeak bikotekidearekiko, gizonek adierazitakoaren arabera eta bikoteak adierazitako lan-tipologiaren arabera, denbora-portzentajeetan adierazita.

### 3.6.- Aisia eta denbora pertsonala

Aisiako denbora pertsonala aztertzeko, hiru galdetegitako erantzunak jaso dira; lehenengo biak eskura dagoen aisiako denboraz dira, eta astean zeharreko eta asteburuko denbora bereizi dira; hirugarrenak eskura dagoen aisiako denbora horrekiko norbere asebetetze maila neurtu du, 1etik 10erako eskalan.

Eskura dagoen denbora bost mailako ordena-eskala batean neurtu da, eta zenbaki bakoitzak bere esanahia du: 1,


*denborarik ez; 2, 0-5 ordu; 3, ordubete edo bi eskura; 4, 2-5 ordu eta 5, aisiarako 5 ordu baino gehiago* dituela esan nahi du. Batez besteko kalkulu bat egin zen, ordutan neurtua, adierazitako bost tarte horietako klase-markak oinarri hartuta. Adierazitako aukera bakoitzean lortutako neurrien emaitzak 3.6.1. taulan daude.

3.6.1 taula. Eskura dagoen aisiako denbora

|  |                                  | Emakumeak      |      | Gizonezkoak    |      |
|--|----------------------------------|----------------|------|----------------|------|
|  |                                  | Batez bestekoa | e.e. | Batez bestekoa | e.e. |
| Aisia pertsonalerako orduak astean zehar | <i>1etik 5erako eskala</i>       | 2.40*          | .099 | 2.73*          | .112 |
|  | <i>Gutxi gorabeherako orduak</i> | 1.24*          | .136 | 1.82*          | .194 |
| Aisia pertsonalerako orduak asteburuan   | <i>1etik 5erako eskala</i>       | 2.75           | .112 | 2.83           | .106 |
|  | <i>Gutxi gorabeherako orduak</i> | 1.83           | .185 | 1.88           | .181 |

Emakumeak beti gizonen azpitik daudela dirudi eskura duten aisia kopuruaren arabera, baina gizonetik alde negatiboa astean zehar eskura duten denboran oinarrituz gero soilik da esanguratsua, dela jatorrizko ordena-eskalan ( $t = -2.68$ ;  $g.l. = 113$ ;  $p < 0.01$ ) dela orduen gutxi gorabeherako kalkuluan ( $t = -2.78$ ;  $g.l. = 113$ ;  $p < 0.01$ ).


Eskura duten aisia denborarekiko asebetetze maila ebaluatuz gero, nahiz emakumeek nahiz gizonen 5az azpiko batez bestekoa dute 1etik 10erako eskalan. Emakumeen batez bestekoa 4.53 puntukoa da (e.e. = 0.251), gizonen batez bestekoaren azpitik dago, gizonena 4.85 puntukoa baita (e.e. = 0.238), nahiz eta alde hau estatistikoki esanguratsua ez izan, bi kasuetan emaitzen barreiadura oso handia baita. Ondorio honetan sakontzeko, 3.7.1 irudian gizonen eta emakumeen asebetetze puntuazioaren banaketa dago, eta bimodalitate argia ageri da banaketa horretan oso nabarmendua emakumeen kasuan. Mota honetako banaketak faktore erabakigarri baten eragina ezkututzen du eta laginaren barruan azpitalde desberdinak sortzen ditu.



3.7.1 grafikoa. Eskura dagoen aisiako denboraren asebetetze mailaren banaketa.

Kasu honetan logikoa da uste izatea neurtutako asebetetze mailan talde desberdinak sortzen dituen azpiko faktorea eskura dagoen aisiako ordu kopurua dela, eta honek eragiten du gogobetetze mailan aniztasun handia egotea

. Ideia hau baieztatzen duten tarteko hainbat analisiren ondoren, aldagai bat sortu genuen asteen zeharreko eta asteburuetakoa aisia-orduak batzen dituen. Barreiadura grafiko batean eskura dituzten osoko aisiako orduen balioen konbinazioa eta gizon eta emakumeen asebetetze maila banatuta adieraziz gero, argi ikusten da bi aldagaien arteko erlazio positiboa, baita aisiako ordu gehigarrien gero eta erabilera marjinal txikiagoa ere. Aisiako ordu bete gehiagok hazkunde esanguratsua eragiten ditu, ia bi puntuko asebetetzea da aisiarako zero ordu izatetik bat izaterako tartean; aldiz, sei ordutik zazpira igaroz gero, emakumeetan ia ez du puntu bateko alderik eragiten eta estatistikoki ez da esanguratsua, gizonetan beherako aldaketa txiki bat dago inolako esangurarik gabea.



3.6.2 grafikoa. Barreiadura grafiko eskura dauden aisiako orduen eta aisiako orduetako asebetetze mailaren artean.

### 3.7.- Beste analisi eta eredu kausal batzuei buruzko azken gogoetak

Aurrez esan bezala, lanarekin eta familia-lan uztartzearen bizipen subjektiboarekin zerikusia duten elementu pertzeptibo eta emozionalei lotutako gaiak, eta horiek partaideen garapen profesionalean dituzten ondorioak txosten honen xedeetatik kanpo daude. Lortutako emaitzen arabera, lan lerro hau garrantzitsua da, hurrengo ikerketetan sakndu beharrekoa. Era berean, beharrezkoa da aldagaien arteko balizko harreman kausalen batzuetan sakontzea ere. Zehatz esateko, datu binakatuen analisi batzuk egitea pentsatzen da, esplizituki alderatzeko egiturazko eraginek (hala nola soldata edo enplegu mota) eta eragin ideologikoen (feminismoarekin edo genero-berdintasunarekin identifikatzea, adibidez) bikoteko kide bakoitzak egiten dituen etxeko eta zaintza lanetan duten eragina.

Datu binakatuen edo diada datuen (*dyadic data* literatura anglosaxoian) analisiak esan nahi du aldagaien arteko ohiko eraduen optika aldatu behar dela, banako bakoitza doikuntzako oinarritzko objektua baita eremuan. Laginak

banakoen bi azpi-lagin ez independente ditu eta ezingo lirateke doitu ereduak banako mailara ohiko ereduekin, bikotea behaketa unitate bezala hartu beharko bailitzateke eta alde batera utzi banakoen aldagaiak. Azken urteetan APIM (*Actor Partner Interdependence Model*) eredu nagusitu da lagin diseinu mota honetarako; horrelakoetan datuak habiaratuta edo bikote desberdinetan kateatuta egoten dira. Eredu mota honen barruko funtsezko ezaugarrietako bat da auresale bat berak zeregin bikoitza duela aktore edo kide izatearen ikuspegitik. Bikoteko bi kideentzat modu simetrikoan jasotzen direnez datuak, aldagai bat berak banako mailan eragina du banakoaren beraren baliotik (aktore gisa balioa) edo bere bikotearen baliotik (kide gisa balioa). Ereduan bi balioak sartuz gero, ereduaren barruan datuek duten elkarmenpektasuna ere kontuan hartu daiteke. APIM ereduak gizabanako bakoitza analisiko oinarrizko unitatetzat erabiltzen du, ereduaren aktore eta kide zeregin bikoitza duela. Tratamendu estatistikorako beharrezkoa da eskura dugun datu-basearen egitura aldatu eta egokitzea eta hasierako egitura analisiaren oinarrizko unitatea bikotea bazen (3.4.1 taula) APIM eredu ezartzeko egitura egokira joatea, non gizabanakoa analisiaren unitate bihurtzen den eta aldagaiak modu bikoitzean aritzen diren aktore eta kide bezala (3.4.2 taula).

3.4.1 taula. Datuen matrizea hasierako egitura klasikoan

|           | Emak<br>umea |               | Gizona    |               |
|-----------|--------------|---------------|-----------|---------------|
|           | Sexua X 1    | ... X k       | Sexua X 1 | ... X k       |
| 1 bikotea | 1            | E 11 ... E 1k | 2         | G 11 ... G 1k |
| 2 bikotea | 1            | E 21 ... E 2k | 2         | G 21 ... G 2k |
| 3 bikotea | 1            | E 31 ... E 3k | 2         | G 31 ... G 3k |
| ...       | ...          | ...           | ...       | ...           |
| n bikotea | 1            | E n1 ... E nk | 2         | G n1 ... G nk |

3.4.2 taula. Datuen matrizea APIM tratamendurako

|           | Aktore<br>a |               | Kidea     |               |
|-----------|-------------|---------------|-----------|---------------|
|           | Sexua X 1   | ... X k       | Sexua X 1 | ... X k       |
| 1 bikotea | 1           | E 11 ... E 1k | 2         | G 11 ... G 1k |
| 2 bikotea | 1           | E 21 ... E 2k | 2         | G 21 ... G 2k |
| 3 bikotea | 1           | E 31 ... E 3k | 2         | G 31 ... G 3k |
| ...       | ...         | ...           | ...       | ...           |
| n bikotea | 1           | E n1 ... E nk | 2         | G n1 ... G nk |
| 1 bikotea | 2           | G 11 ... G 1k | 1         | E 11 ... E 1k |
| 2 bikotea | 2           | G 21 ... G 2k | 1         | E 21 ... E 2k |
| 3 bikotea | 2           | G 31 ... G 3k | 1         | E 31 ... E 3k |
| ...       | ...         | ...           | ...       | ...           |
| n bikotea | 2           | G n1 ... G nk | 1         | E n1 ... E nk |

Ikuspegi honek datuen matrizea SPSSn egotea esan nahiko luke, jatorrizko matrizearen lerro bikoitzekin (236) eta aldagai kopuru berdinarekin, baina aldagaien zeregina bereizi beharra legoke aktore edo kide izatearen arabera, bikoteko kidea edo bestea izatearen arabera. APIM eredu orokorreko teknika eta estrategia metodologikoa duela gutxiko metodologia baten arabera dira eta anitzak eta konplexuak dira hainbat faktoreren arabera, hala nola, bikoteen tipologia, ereduaz azaldu den aldagaiaren izaera edo aldagai auresaleak. Helburu hauek txosten honetako helburuez kanpo daudenez, hemen ez dira gehiago garatuko. Harreman hauen esplorazio-analisiaren ikusitako emaitzen patroiek erakusten dutenez, analisi hau ikerketako beste alor batzuetara hedatuz gero, erantzunkidetasuna ulertzeko ikuspegi berriak ireki daitezke,

kontuan izanda bikotean banakoaren jokaera norbere ezaugarrien mende ez ezik, bikoteko bi kideen arteko egiturazko faktoreen edo ideologikoen elkarreraginaren mende ere badagoela.

# Ondorioak

## 4.- Ondorioak

Txosten honetako ondoriorik garrantzitsuenen laburpena dago jarraian. Lehenengo atalean aztertutako aldagai bakoitzean lortutako emaitzarik nagusienetako batzuk daude laburtuta. Bigarren atalean interpretazio batzuk eta ekiteko iradokizun batzuk daude, ikusitako emaitzen arabera.

### 4a. Ikerketaren ondorio nagusiak

---

Ikerketako ondorioak analisi deskriptiboetatik eta aztertutako aldagaietarako elkartzeko-neurririk garrantzitsuenetatik ondorioztatu dira eta hauek izan dira:

- Familia-testuingurua
- Genero-ideologia/feminismoa
- Zaintzei buruzko emozioak
- Identitatea eta balio pertsonalak
- Denbora-erabileren pertzepzio subjektiboa.
- Aisia eta denbora pertsonala.

#### 4a.1 Familia-testuingurua

- Parte hartu duten bikoteen familia-testuinguruarekiko lortutako emaitza zuzen lotuta dago duela hamarkada batzuk nagusi zen lanaren banaketa sexualarekin; hau da, amak batez ere etxeko lanak egiten eta haurrak zaintzen eta aitak etxetik kanpoko soldatapeko lanean, batez ere.
- Emaitzak adierazten duenez, aitaren soldatapeko lana ohiko lanaldi osoari dagokio, aldiz, amak gehienetan lanaldi partziala du.
- Belaunaldi faktoreek ere eragin berdina dute inkestatuetan, izan ere, antzeko gizarte ingurutik datoz eta beren aiten eta amen rola eta inkestatuaren sexua independenteak dira.

#### 4a.2 Genero-ideologia/feminismoa

- Gizon eta emakumeen arteko berdintasun gaiekin inkestatutakoek duten inplikazio maila altua da, bi taldeek ia balio berdina lortu dute, 8tik gorakoa, 1etik 10erako eskalan.
- Inkestatuek feminismoarekin duten identifikazioa ere handia da, nahiz eta kasu honetan gizon eta emakumeen artean aldeak egon; emakumeek puntu bat baino gehiagoko aldea dute beren alde.
- Aldagai hauen arteko harreman mailari dagokionez, emakumeetan *berdintasunaren* eta *feminismoaren* arteko korrelazioa positiboa da, altuenetako bat izateaz gain. Gizonen artean, ordea, korrelazio hori askoz ahulagoa da.
- Badira beste korrelazio aipagarri eta esanguratsu batzuk ere, hain zuzen ere *ezkerre eskuina eskala* eta *feminismoaren* arteko korrelazio prebisiboki negatiboa, emakumeen taldean kalkulatu.



- Partaideek emakume eta gizonen ideologia orokorrarekin duten identifikazioari dagokionez, ezkererako joera garbia da, eta bikotearen barneko konkordantzia maila azpimarratu beharra dago.

## 4a.3 Zaintzei buruzko emozioak

- Lortutako emaitzen arabera, oro har, sentimendu positiboak hazi egiten dira seme-alabekin egotean eta negatiboak murriztu.
- Emakumeak eta gizonak beren emozioetan alderatuz gero, biek antzera ebaluatzen dituzte beren emozioak seme-alabekin edo gabe igarotako denborarekiko.
- Zaintzei buruzko emozioetan hautemandako alde bakarra seme-alaba horiekin bikoteak igarotako denboran dago. Emakumeek gizonak baino puntuazio altuagoa dute emozio positiboetan. Zehatz esateko, emakume eta gizonen artean aldeak daude hiru emoziotan seme-alabak bikotearekin daudenean:
  - Tristura: gizonak emakumeak baino tristeago sentitzen dira.
  - Poza: emakumeak gizonak baino pozago sentitzen dira.
  - Askatuta: emakumeak gizonak baino askatuago sentitzen dira.

## 4a.4 Identitatea eta balio pertsonalak

### Genero-identitatea

- Emakumeek gizonak baino altuago puntuatu dute identitatearen ezaugarri adierazkorren itemetan, besteen zaintzarekin eta orientazioarekin zerikusia baldin badute (*Besteei eskaintzeko gaitasun handia, Oso atsegina, Besteen sentimenduez oso ohartzen da, Oso ulerkorra*).
- Identitate instrumentalen ezaugarriari dagokienez (*Oso lehiakorra, Inoiz ez dut amore ematen, Norbere buruaz oso seguru, Gehiago sentitu*), egoera aldatu egiten da, eta gizonak emakumeek baino puntuazio altuagoak dituzte.
- Gizonen eta emakumeen artean hautemandako aldeak handiagoak dira identitate adierazkorreko ezaugarrietan, identitate instrumentaletakoetan baino.

### Bizitzako helburu garrantzitsuak

- Emakumeek gizonak baino puntuagoa handiagoa dute *laguntzearekin* eta *besteez kezkatzearekin* zerikusia duten bizitzako baterako helburuetan.
- Banako helburuei dagokienez, gizonak emakumeen gainetik daude zalantzarik gabe "*Lehiatu*" helburua, aldiz, emakumeak gizonen gainetik daude "*Independenteak izan*" helburuan.

### Lana edo familia lehentasuna

- Emaitza guztietan bizitzako lehentasuna familia den arren lanarekin alderatuz gero, autopertzepzio terminoetan gizonak familiaren lehentasunera gehiago hurbiltzen dira emakumeak baino.
- Heretopertzepzioari dagokionez (bikotekideak zutez pentsatzen duena), emakumeen ustez beraiek familiaren lehentasunetik ez daude beren burua kalifikatzean agertzen diren bezain gertu,

aldi, gizonen beren bikotekideak familiarako joera handiagoarekin ikusten dituzte bikotekide horiek beren buruez uste dutena baino.

- Gizonen kasuan autopertzepzio eta heteropertzepzio dimentsioetan hautemandako aldeak nahitakoaren eta behatutakoaren arteko aldea esan nahiko dute beharbada, hurrenez hurren. Adibidez, gizonetako lanerako joera handiagoa dute beren bikotekideen ustez, nahiz eta gizonen beraiek familiari lehentasun handia eman, eta horrek beren nahien eta jokaeraren arteko kontraesana adierazi dezake.

## 4a.5 Denbora-erabileren pertzepzio subjektiboa

- Bikoteko kide bakoitzak egiten duela diona eta bere bikotekideak ikusten duena alderatuz gero, kasu bietan beren bikotekideak ikusten duena baino gehiago egiten dutela uste dute.
- Emakumeek beren buruei portzentaje handiagoak ematen dizkiete jarduera guztietan *Zorua garbitu eta Seme-alabekin broman eta jolasean ibili* jardueretan izan ezik.
- Emakumeek eta gizonen eskaintzen dieten denboraren artean alderik handienak jarduera hauetan daude: *Haurrei arropa erostera joan, Arropa garbitu, Janaria prestatu eta Haurrak medikuarengana eraman*.
- Beste batzuen laguntzarik handiena duten jarduerak *Etxea garbitu* eta *Etxeko lanez arduratu* dira; nahiz gizonen nahiz emakumeen eskuordetutako denboraren % 10 baino gehiago izaten da.

### Denbora erabileraren aldeak alderatuta

- Oro har, adostasuna dago eta bai emakumeek bai gizonen uste dute emakumeek karga handiagoa dutela hainbat zereginetan, biak bat datoz esatean kasurik gehienetan azken erantzukizuna emakumeen esku geratzen dela.
- Emakumeetan aldean balio positiboak dira nagusi, *nik bikotekideak baino gehiago egiten dut*, aldiz, gizonetan negatiboak dira nagusi, *nik bikotekideak baino gutxiago egiten dut*.
- Oro har onartzen den arren etxeko eta zaintzako jardueretan emakumeek karga handiagoa hartzen dutenla, *Haurrak bainatu eta jantzi edo Eskolaz kankoko jardueretara eraman* bezalako zereginetan alde batzuk dauden (gizonen ustez nahiko berdina banatuta daude gauzak, baina emakumeen ustez gizonen baino gehiago egiten dute zeregin hauetan).
- Dimentsio bakarra dago gizonen eta emakumeen uste dutena aitak amak adina denbora edo gehiago igarotzen duela: *seme-alabekin broman eta jolasean aritu*.

### Zereginen eskaintzako denbora lanari eskaintzakoarekin lotuta

- Emakumeek eta gizonen hartzen duten karga, lanari eskaintzen zaionaren arabera dago.
- Bikoteko bi kideek lanari denbora berdina eskaintzen dioten kasuetan, emakumeek ugalketa arloko lan- karga handiagoa izaten dute eta gizonen txikiagoa.
- Emakumeek gizonen baino lanaldi txikiagoa duten bikoteetan, emakumeentzat karga handiagoa da eta apur bat txikiagoa gizonentzat.
- Emakumeek gizonen baino lanaldi handiagoa duen bikoteetan, emakumeek karga txikiagoa izaten dute eta apur bat handiagoa gizonen, nahiz eta estereotipoaren aurkako bikoteentzako (emakumeek soldatapeko lan karga nabarmen handiagoa duena)

laginaren neurria oso txikia izan eta ondorioz, ezin eman emaitza erabakigarriak horrelako bikoteen datu gehiago izan arte.

- Bi zereginetan emakumeei gaitz jartzen zaiela ikusten da bereziki, bikote mota dena delakoa izan arren: *diziplina mantendu eta maitasuna eta babes emozionala eman*.

## 4a.6 Aisia eta denbora pertsonala

- Emakumeak gizonen azpitik daude, eskura duten aisiari dagokionez.
- Emakumeek denbora pertsonal gutxiago duten arren eskura gizonek baino, eskura duten aisiako denbora horrekiko asebetetze mailari buruzko ebaluazioak antzekoak dira emakume eta gizonentzat, nahiz eta kasu bietan 1etik 10erako eskalan 5az azpitik egon.

## 4b. Lan eta esku-hartze arloak

---

### 4b.1 -Belaunaldi-aldaketa: iraun eta eraldatu

---

Ikerketa honetatik ondorioztatzen diren belaunaldi arteko datu konparatiboak oinarri hartuta, gaur egungo aitak eta amak beren aitatasuna eta amatasuna beren aitek eta amek egin zutena ez bezala gauzatzen ari direla. Oraindik desberdintasunak dauden arren, oro har bikoteko bi kideengan funtzio bikoitza (zaintzak emateaz gain baliabide materialak hornitzea) iraganean baino presentean dagoela esan daiteke. Beste estudio batzuetan adierazi bezala, arazo nagusia da gizonak zaintza munduan ez direla sartu emakumeak lan munduan adina, ondorioz, emakumeek pisu handiagoa dute.

Aitatasunak gizonen bizitzan aurreko belaunaldietan baino toki handiagoa hartzen du eta horrek eragina du identitate maskulinoaren eraikuntzan. Gizon batzuk maskulinitatearen eredu alternatiboak eraikitzen ari direla dirudi, aurreko belaunaldietan maskulinitate hegemonikoak ezarritako rol klasikoak eraldatuaz eta zalantzan jarriaz.

Oro har, aitak beren aitak eurekin baino gehiago eta hobetu inplikatzeko dira haurrak zaintzen, beren inplikazioa beharrezkoa dela ohartzen dira, horri buruzko kontzientzia handiagoa dute, eta beren buruez aita zaintzailearen irudi markatuagoa dute. Dena dela, kontraesanek iraun egiten dute alor guztietan egondako aldaketa nabarmenen (norbere ideologia, balioak, berdintasunaren pertzepzioa, etab.) eta erresistentzia nabarmenen artean, erlazio dinamikoa dago eta denboraren erabileran, lan munduarekiko harremanean, zaintzako erantzukizunetan edo beste batzuk zaintzeko baja edo eszedentzietan ikus daitezke, besteak beste.

**1. proposamena:** *Belaunaldi aldaketak finkatzeko eta berdintasun arloan egondako aurrerapenetan atzerapenak saihesteko, berdintasun, hazkuntza eta erantzunkidetasun arloko departamendu arteko trebakuntza eta sentsibilizazio programak abian jartzea, sustatzea eta laguntzea proposatzen da. Programa horiek gizonentzako eta mistoak (bikoteentzat) lirateke. Bereziki azpimarratuko lirateke belaunaldi arteko aldaketak eta egitura-kultura arloko baldintzatzaileak. Izan dezaketen eragina dela eta, neurri hauek haurdunaldiko hasierako etapetan eta haur jaio berriekin esku-hartzen duten pertsonen zuzenduta egongo lirateke bereziki; eta erditzea prestatzeko ikastaroak oso egokiak lirateke eduki eta prozesu hauek sartzeko.*

## 4b.2- Errealitatea vs. pertzepzioa distortsioa

---

Gure gizartean aldaketak egon diren arren gizonek hazkuntza eta ugalketa lanetan duten esku-hartzean, nolabaiteko distortsioa dago inplikazio mailaren pertzepzioaren eta lan horiek egiaz egitearen artean. Nabarmendu beharrekoa da nahiz gizonek nahiz emakumeek egiten dutena gairik gaitzeskeraz joera dutela beren bikotekideak baloratzen duenarekin alderatuz gero (bien ustez bikotekideak aitortzen diena baino gehiago egiten dute). Emaitzen patroia honek adierazten du, beharrezkoa dela bikote barruan hausnarketa prozesuak sortzea, elkarrekin kuantifikatu dezaten eta bakoitzak egiten dituen jarduera desberdinak balioan jartzea, bikotean gaizkiulerturik egon ez dadin eta familiako sisteman eragin positiboa izango duten komunikazio-espazioak bultzatzeko.

Nabarmendu beharrekoa da, halaber, norberak egiten duenaren eta bikoteak uste duenaren arteko alde hauek handiagoak direla emakumeek egiten dituzten zereginen dagokienean. Gizonen kasuan nolabaiteko adostasuna dago hauek jarduera horietan igarotzen duten denbora portzentajeari buruz (oro har ados daude % 40 baino txikiagoa dela), baina emakumeek egiten dutenez desadostasun argia dago. Emakumeen ustez lanaren portzentaje handia egiten dute, aldiz, gizonek zeregin horien zati txiki bat baino ez dute aitortzen, eta beren emazteei portzentaje askoz txikiagoa aitortzen diete –edo beren buruei askoz portzentaje handiagoa.

Emaitza hauek oinarri hartuta, gomendagarria litzateke aurrez aipatutako hausnarketa eta elkarrizketa prozesuetan faktore hau kontuan izatea, emakumeek egiten duten lana ikusgarriago bihurtzeko eta beharrezkoa den arloetan gizonen aurrerapen handiagoa izateko behar diren urratsak emateko. Era berean, aitek beren gain hartutako erantzukizunen pertzepzioan balizko distortsioa egotea ere planteatu da, aparteko ekitaldietan askotan izaten den "arreta selektiboko" eraginarekin bat. Gauzak horrela, pertsona batek (gizon batek) estereotipoaren aurkako alorrean egindako lanek (zaintzan eta etxeko lanetan egindakoak) arreta handiagoa jaso dezakete ohartu gabe, zeregin horiei balio handiagoa eman dakieke berak duen genero rol horren aurkakoak baitira eta, ondorioz, arreta berenganatzen dute.

Esan beharra dago ugalketa lanetan emakumeek pisu handiagoa dutela eta erantzukizun eta dedikazio kontzeptuak desberdinak direla era bai. Oro har, erantzukizun nagusia oraindik ere emakumeek dutela ikusten da: gizonen ugalketako berriazko zeregin batzuetan parte hartzen duten arren, ez du esan nahi hauek zereginaren erantzukizuna hartzen dutenik.

Beraz, ondorioztatu dezakegu denbora erabileraren pertzepzioan distortsioak egon daitezkeela dela gizonen dela emakumeen aldetik "nik egiten dudala uste dudana" eta "nire bikoteak nik egiten dudala uste duena" kontzeptuen artean. Hori dela eta, hausnarketa prozesuak hasi beharra dago emakumeek eta gizonen etxeko lanetako inplikazioaz dituzten pertzepzioei buruz, eta guneak ireki beharra dago bakoitzak etxeko eta zaintza lanetan igarotzen dituen orduen

inpresioa partekatzeko, dauden alde horiek bikoteko eta elkarbizitzako gatazkarik ekarri ez dezaten.

**2. proposamena:** *Bikoteentzako hausnarketarako eta elkarrizketarako espazioak sustatu, emakumeek egiten duten lana ikusgarriagoa izan dadin eta kide bakoitzaren egiazko inplikazioaren analisi kritikoa egin dadin, lanak egitea eta horien erantzukizuna bereiziaz berariazko sentsibilizazio-kanpainen bidez.*

## 4b.3 - Aldaketa psikologikoak eta identitatea

Ikusitako emaitzen arabera, garrantzitsua da bikotean jokaera berdintzaileagoak garatzen dituzten edo garatzea oztopatzen duten elementu psikologikoetan sakontzen jarraitzea. Bestalde, argi dago identitateko ezaugarri adierazkorren (zaintzari lotutakoak) eta adierazkortasunari lotutako bizitzako balio eta helburuen (besteengatik kezkatzea, adibidez) garapen mugatua dutela gizonak. Identitatea denez jokabidean eraginik handiena duen faktoreetako bat eta nortasuna eratzen duenez -eta hau oso lotuta dago bizitzan lehentasuna ematen zaien balioei eta helburuei-, gizonak banako balio eta ezaugarri hauek ez edukitzea da etxean zaintzako jarrera ez garatzeko lehenengo oztopoa. Adierazkorra identitateko elementu gisa ez duen maskulinitatearen profil hau arazoa izan daiteke gizonentzat beraienez ere. Seme-alabekin ez daudenean sentitzen diren emozioen atalean, adibidez, emakumeak nahiko aske eta pozik sentitzen diren arren aita hurrekin dagoenean, gizonak tristura sentitzen dute ez daudenean eta emakumean denean seme-alabak zaintzen ari dena.

Aitatasun aktiboa egiteak eta etxeko eta zaintzako lanetan portzentaje handiagoak beren gain hartzeak banako eta bikote mailan aldaketak dakartza, tentsioak, lehen mailako ikaskuntzak, kontraesanak, gatazka eta koherentzia gabeziak ere bai eta horrek guztiak identitate mailako aldi bateko edo betirako gatazka sor ditzake. Gizarte funtzioak elementu psikologikoen garapenari lotuta daude oro har eta elementu horiek funtzio horietara egokitzea ahalbideratzen dute (hau da, denboran iraunkorrak diren zaintza jokabideak garatzea eta enpatia, abegikortasuna eta emozioei arreta jartzen dien ezaugarriekiko banako garapena lotuta doaz). Baina arlo psikologiko eta identitatea arloko osagai horiek gabe -jokabidearen aurrekoak edo ondoriozkoak izan daitezke-, oso zaila da gizonak etxekoan inplikatzeko egiazko aldaketak sortzea.

Hori dela eta, gizonak etxeko lanetan duten parte hartze mugatu horren atzean dauden mekanismo psikologikoetan sakontzeko analisi eta esku hartzeko bidea sartzea bereziki beharrezkoa izan daiteke aldaketa horiek sustatzeko eta egiturazko beste ikuspegi batzuk osatu ditzake; horrela, gizonak kokapen eta praktika berdintzaile eta erantzunkideagoetarako beharrezko eraldaketak egiteko lagungarria izan daiteke. Era berean, garrantzitsua da

kontuan izatea identitateko elementu hauek zer elkarreragin duten pertsona sartuta dagoen gizarte elementuekin. Besteak beste, garrantzitsua da gizonentzat eta emakumeentzat bereizi gabeko sozializazio espazioak sortzea (gehiago azpimarratuaz gizonen zaintza funtzioetan, maskulinitatearen elementu definigarri legez), gizonei zaintzarako ezaugarri eta kompetentzia gehiago eman ahal izateko. Aldaketa hauek tentsioa eta gatazka sortzen duten guneak murrizten lagunduko lukete, nahiz norbere itxaropenetan nahiz bikotearenean eta familiako sisteman.

**3. proposamena:** *Sentsibilizazio eta trebakuntza jarduerak egin ikuspegi psikologikotik, emakumeen eta gizonen identitate eta emozio arloko aldaketak sustatzeko, biei beren identitateak feminitate/maskulinitate eredu berdintzaileagoarekin berreraikitzen lagunduko dieten tresnak emanaz . Maskulinitate eta feminitate eredu alternatiboak sustatu eta balioa eman.*

## 4b.4 - Estereotipoaren aurkako bikoteetan sakondu

Datuen arabera, etxeke eta zaintza lanetan gizonak baino emakumeek erantzukizun handiagoa hartzeko joera onartuta dago oro har, eta joera hori zuzentzen den kasu bakarra da amak bere bikoteak baino dedikazio handiagoko soldatapeko enplegua duenean. Denboren erabilera berdina egiten dela dirudi beren planak ohiko amatasun eta aitatasun ereduetatik urruntzen diren bikoteetan. Horrelakoetan emakumeak bere identitatea bere lanaren bidez gehiago eraikitzen du, eta gizonak, ondorioz edo modu paraleloan, modu natural eta berdintzaileagoan bizi dituzte zaintza arloko erantzukizunak.

Emaitza hauek itxaropentsuak dira, genero rola alderantzizatzeko aukera ikusten baita eta gizonetan inplikazio handiagoa sustatzekoa ere bai, gizarte eta ekonomia arloko esku-hartzearen bidez. Baina estudio honetako laginean bikote mota honek duen neurri mugatua dela eta, ezinezkoa da erlazio hauei buruzko ondorio sendoak ezartzea; ezinezkoa da, halaber, mota honetako bikoteetan aurki daitezkeen berariazko beste prozesu batzuetan sakontzea ere. Ekintzarako berariazko lerro gisa, beza, egungo lagina haztea proposatzen da, estereotipoaren aurkako bikote gehiago sartzeko (aitak amak baino ordu gutxiagoko lana duena edo langabezia dagoena), zehatzago aztertu ahal izateko horrelako bikoteetako prozesuak eta bikote tradizionalagoetan aldaketak sortzeko erreferentzia gisa erabili. Era berean, gaur egun gure gizartea erlazionatzeko modu ugari dagoela kontuan izanda, sexu bereko gurasoak (aitak edo amak) dituzten bikoteetako erlazio-dinamikak eta rolen banaketa sartzeko aukerak elementu oso aberasgarria eman dezake. Bikote hauekin egindako lana profil hain berdintzailea ez duten bikoteekin paraleloan egindako lanarekin osatu daiteke, elkarrekin gunean sortu ahal izateko eta gune horietan esperientziak partekatu eta praktika onen transferentziak egin ahal izateko.

---

**4. proposamena:** *Egungo lagina hazi, estereotipoaren aurkako bikote gehiagorekin, beren berriazko dinamikak eta prozesuak identifikatzeko eta egiazko berdintasunerantza joateko erreferentzia nola izan daitezkeen ikusteko.*

---

## 4b.5-Faktore ideologikoak vs. Egiturazko faktoreak

---

Ikusitako emaitzen arabera bada sakondu beharreko lan-arlo bat ere, hau da, elementu ideologikoek eta egiturazko elementuek nola elkarrekiten duten aldaketak -eta erresistentziak- egoteko garrantzia handia izan dezaten, gizonak etxeko eta zaintza lanetan inplikazio handiagoa sustatzeko prozesuan. Partaideek oro har berdintasun arloan inplikazio handia adierazten duten arren, bikotean desberdintasun handiak daudela adierazten dute emaitzek. Enplegu motaren eta denbora erabileren arteko harremanaren azterketatik ondorioztatzen den legez, etxeko gauzekiko denboraren banaketa lanari eskaintzen zaion denborak oso markatzen du (egiturazko faktorea). Aurrez erdu kausalekin egindako azterketak ere ildo berekoak dira, soldata bezalako elementu egiturazkoak eragin handia duten denboraren erabileran, eta kokapen feminista bezalako elementu identitarioak ezgaitzeko gai dira.

Emaitzen patroia honek bi dimentsioen arteko erlazio konplexua adierazten du eta sakontzea interesgarria litzateke. Espero bezala, bi kideek joera feminista edota berdintzailea duten bikoteetan ere lanaren banaketako ohiko funtzioak erabili beharra izan dezakete bikoteaz harantzagoko faktoreen ondorioz (adibidez, enpresak amak amatasuna hartzeko onarpen handiagoa) eta modu markatuagoan zehazten dituzte faktore horiek bikotearen barruan erabakiak hartzeko egiazko aukerak. Soldata edo enplegu mota bezalako egiturazko elementuen pisuak ezgaitu egin dezake beste faktore ideologik batzuen eragina eta azkenean emakumeak izan behar etxeko eta zaintza lan gehienak egingo dituen, laneko baldintzek horretara bultzaz gero. Aldiz, eta ikuspegi optimistago batetik, litekeena da bikote batean hasieran kideak berdintasunarekin oso konprometuta ez egotea eta beren egiturazko egoeraren ondorioz (adibidez, emakumeak enplegu hobea du eta bere bikotekide gizonarena baino soldata hobea ere bai) beren genero rola aldatu behar izatea eta gizonak egin behar izatea etxeko eta zaintza lanak batez ere. Horiek horrela, erlazio hauen azterketa ekintza lerro esplizitu bezala planteatzen dugu, dimentsio horiek gizonak etxean parte hartze handiagoa izateko nola elkarreragiten duten identifikatzeko.

---

**5. proposamena:** *Faktore ideologikoen eta egiturazkoen artean egoten diren elkarrekintzaren ezagutzan eta ondorioetan sakondu, erantzunkidetasun arloan aurrera egiteko bietan aritzea beharrezkoa dela premisa hartuta, baita erlazio horiek berriazko zer formatan ematen diren ere, zuzendu ahal izateko.*

---



## 4b.6 - Enplegu arloa

Kontuan izanda etxeko lanaren banaketa zein garrantzitsua den lan munduan berdintasuna sustatzeko, garrantzitsua da amek eta aitek enplegu arloarekiko izaten dituzten bizipenetan berariaz sakontzea, eta etxeko eta zaintza lanetan gehiago sartzekak bikoteko bi kideentzako lanean izango lituzkeen ondorioen pertzepzio subjektiboa aztertzea, baita zeregin horietan zerikusia duten laneko faktoreak ere. Alor honetan daukagun berariazko proposamena da emakumeek eta gizonek beren bizitza pertsonalari eta profesionalari buruzko erabakiak hartzeko emakumeek eta gizonek erabiltzen dituzten mekanismoetan sakontzea, bestearen zer funtzio sakrifikatzen duten ikustea eta erabaki horien guztien azpian dauden testuinguruko faktoreak eta prozesu psikologikoak identifikatzea. Aztertu beharreko beste elementuetako bat da bizitza pertsonala edo familiara eta laneko bizitza uztartzea ezartzen duten enpresek nola hautematen duten hori, erakundeetan berdintasun-helburuen garapenari zuzen lotuta. Azterketa batzuek iradokitzen dutenez, lanean izaten den asebetetze maila eta langileen banako etekina handiagoak direla bizitza pertsonala eta lanekoa uztartzeko ekintzak abian jarri dituzten enpresetan (Amstad, Meyer, Fasel, Elfering eta Semmer, 2011). Hori dela eta, orain artean osoan heldu ez zaion gai bati heltzea eta aztertzea garrantzitsua da; hau da, uztartze hori errazten duten telelana bezalako neurriak hartzea baliabide garrantzitsua izan daitekeela erakundeentzat eta langileentzako ez ezik erakundearen lehiakortasunerako ere onurak ekar ditzakeela.

Era berean, genero estereotipoak eta emakumeen eta gizonen arteko aldean betikotzea lana egiteaz harantzago daudenez –adibidez, buruzagitza-estilo erangikorragoak (Gartzia eta van Engen, 2012) edo talde barneko lankidetzaren bezalako erakunde mailako jokabideak (Gartzia eta van Knippenberg, 2015)-, enpresetan lankidetzarako eta esku-hartzeko erlazio estuagoak ezartzeko beharra planteatu da, bizitza profesionala eta pertsonala uztartzeak erakundeetan bertan zer ondorio dituen berariaz sakondu ahal izateko. Gai hau dela eta, azterketa askotan erakutsi da genero ikuspegia sartzekak erakundearen funtzionamenduan ondorio positiboak dituela, nahiz kudeaketaren eta etekinaren ikuspegitik, nahiz enpresaren irudiari eta ospeari dagokionez, (Bear, Rahman eta Post, 2010), dela produktuen eta zerbitzuen hornitzaile gisa (Braithwaite, 2010) dela enplegua ematen duen erakunde gisa (Lundkvist, 2015). Aldi berean, estereotipikoki femeninoa denak balioa duenez egungo erakundeetan, azterketa kopuru garrantzitsu batek erakutsi du genero berdintasunaren eta erakundearen funtzionamendu eta kudeaketa egokitaren artean harremana dagoela (ikus Eagly, Gartzia eta Carli, 2014 gaiari buruzko azterketa sistematikorako). Hori dela eta, erakunde publikoen eta enpresen artean bi helburuak -berdintasunarena eta lehiakortasunarena- batera zerbitzatzeko lotura eta lankidetzaren mekanismo sendoagoak finkatzea laneko ildo garrantzitsua da, baina oraindik abian jarri gabe dago erantzunkidetasunaren eta gizonek etxean inplikazio handiagoa izatearen markoan.

**6. proposamena:** *EAEko enpresekin lankidetzaren harremanak ezarri, erantzunkidetasunaren garapenean eta horrek erakunde mailan dituen ondorioetan zerikusia duten prozesuetan sakontzeko, eta prozesu horietan behar diren diagnostikorako tresnak erabili berdintasun horrek lehiarako abantaila gehiago ekarri ditzan.*

## BIBLIOGRAFIA

- Abril, P. eta Amigot, P.; Botía, C.; Domínguez-Folgueras, M.; González, M. J., Jurado-Guerrero, T.; Lapuerta, I.; Martín-García, T.; Monferrer, J. eta Seiz, M. (2015). Ideales igualitarios y planes tradicionales: análisis de parejas primerizas en España. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 150, 3-22.
- Abril, P. eta Romero, A. (2005). Masculinidad y trabajo. Las empresas con políticas de género y sus consecuencias sobre la masculinidad. *Sociología del Trabajo*, 55, 3-26.
- Aguayo, F., Correa, P., Cristi, P. (2011). Encuesta IMAGES Chile Resultados de la *Encuesta Internacional de Masculinidades y Equidad de Género*. Chile.
- Amstad, Meier, Fasel, Elfering eta Semmer, (2011). *Meta-analysis of work-family conflict and various outcomes with a special emphasis on cross-domain versus matching-domain relations*. *Journal of Occupational Health Psychology*, 16, 2, 151–169.
- Aresti, N. (2010). *Masculinidades en tela de juicio. Hombres y género en el primer tercio del siglo XX*. Madril, Ediciones Cátedra.
- Barker, G. (2003) *Men's Participation as Fathers in the Latin American and Caribbean Region: A Critical Literature Review with Policy Considerations*. World Bank (Final Draft).
- Barker, G. (2008). *La participación del hombre como Padre en la Región de América Latina y el Caribe: Una Revisión de Literatura Crítica con Consideraciones para Políticas*. Promundo/Save the Children. Brasil.
- Bem, S.L. (1974). The measurement of psychological androgyny. *Journal of Consulting and Clinical Psychology*, 42, 155-162.
- Brody eta Hall, (2000). *Gender and Culture Differences in Emotion - School of Psychology*. UK.
- Carabí, A eta Armengol (ed.), (2008). *La masculinidad a debate*. Barcelona: Icaria.
- Cohen, J. (1988). *Statistical Power Analysis for the Behavioral Sciences, second edition*. Hillsdale, N.J.: Lawrence Erlbaum
- Connel R. W., (1995). *Masculinities*. Berkeley, University of California Press.
- CIS (2012) *Conocimiento sobre la realidad sociopolítica y económica*. Estudio nº 2973 de diciembre de 2012.
- Croft, A. (2014). Artículos: *Dads Who Share the Load Bolster Daughters' Aspirations*. Ciencia de la Psicología. Honako honetan eskuragarri: <http://www.psychologicalscience.org/index.php/news/releases/dads-who-share-the-load-bolster-daughters-aspirations.html>
- Duran, M. A. (2007). *El valor del tiempo, ¿Cuántas horas le faltan al día*. Madril, Espasa argitaletxea.
- Eagly, A. H. (1987). *Sex differences in social behavior: A social-role interpretation*. Hillsdale, NJ: Erlbaum.
- Emakunde (2014). *Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin*: Vitoria-Gasteiz, Emakunde. Eurostat (2014). *Labour Force Survey* (en línea). Honako honetan eskuragarri: [http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/labour\\_market/introduction](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/labour_market/introduction)
- Eustat (2012). *Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta. Emaitzak aztertzea*. Gasteiz. Eustat.
- Gartzia, L., Aritzeta, A., Balluerka, N., & Barberá, E. (2012). Inteligencia emocional y género: más allá de las diferencias sexuales. *Anales de Psicología*, 28, 567-575.
- Gartzia, L., & van Engen, M. (2012). Are (male) leaders “feminine” enough? Gender traits of identity as mediators of sex differences in leadership styles. *Gender in Management*, 27(5), 295-314.
- Gartzia, L. & van Knippenberg, D. (2015). Too Masculine, Too Bad: Effects of Communion on Leaders' Promotion of Cooperation. *Group and Organization Management*, 1-33.
- Gartzia, L., & López-Zafra, E. (2014). Gender Research in Spanish Psychology: An overview for international readers. *Sex Roles*, 70(11-12), 445-456.

- Gartzia, L., & López-Zafra, E. (2016). Gender Research in Spanish Psychology, Part II: Progress and Complexities in the European Context. *Sex Roles*, 73 (11-12).
- Gartzia, L., & Fetterolf, J. (2016). What Division of Labor Do Spanish University Students Expect in their Future Lives? Divergences and Communalities of Female and Male Students. *Sex Roles*, 74, 121-135.
- Hearn, J. (1995). *A Crisis of Masculinity, or New Agendas for Men?* Palgrave MacMillan, London, Editorial: Routledge.
- Hearn, J. (2014). Contextualizing Men, Masculinities, Leadership and Management: Gender/Intersectionalities, Local/Transnational, Embodied/virtual, Theory/Practice. En S. Kumra, R. Simpson eta R. Burke (Eds.), *Oxford Handbook of Gender in Organizations* (417-436 or.). England: Oxford University Press.
- Harrington, B., Van Deusen, F., Humberd, B. (2011). *The new dad. Caring, committed and conflicted.* Boston College.
- Lamb, M. E. (2004). *The Role of the Father in Child Development.* Hoboken, New Jersey: John Wiley eta Sons.
- Mayer, J.D., Salovey, P., & Caruso, D.R. (2004a) Emotional intelligence: theory, findings and implications. *Psychological Inquiry*, 60, 197-215.
- Morales, P. (2012). Gizarte Zientziei aplikatutako estatistika. *Laginaren neurria: zenbat subjektu behar ditugu?* Honako honetan eskuragarri: <http://www.upcomillas.es/personal/peter/investigacion/Tama%F1oMuestra.pdf>
- Nock, S. eta Einolf, C. (2008) *The One Hundred Billion Dollar Man. The Annual Costs of Father Absence.* AEB: National Fatherhood Initiative.
- Olavarria, J. (2003). Men at home: Childrearing and housekeeping among Chilean workingclass fathers', in M.C. Guttman (ed.) *Changing Men and Masculinities in Latin America.* London: Duke University Press.
- Rubin, Z., Provenzano, K.J. eta Luria, Z. (1974). Social and cultural influences in sex-roles development. The eye of the beholder. Parents views on sex of new borns. *American Journal of Orthopsychiatry*, 44, 512-519.
- Sarkadi, A., Kristiansson, R., Oberklaid, F. eta Bremberg, S. (2008). Fathers' involvement and children's developmental outcomes: a systematic review of longitudinal studies. *Acta Pædiatrica* 97.
- Schein, Ruediger, Lituchy eta Jiang (1996). *Think manager—think male: a global phenomenon?* AEB. Journal of Organizational Behavior, 17, 33-41.
- Segura, S. eta González-Romá, V. (2003). How do respondents construe ambiguous response formats of affect items? *Journal of Personality and Social Psychology*, 85, 956-968.
- Seidler, Victor J. (2006). *Culturas globales y vidas íntimas.* Madril, Montesinos Ensayos.
- Shields, (1995). An empirical analysis of firms implementation experiences with activity-based costing. *Journal of Management Accounting Research*, 7.
- Simon eta Nath, (2004). *Los afectos: diferencias entre géneros.* Argitaletxea: Ediuno, Espainia.
- Spence, J. T., eta Buckner, C., E. (2000). Instrumental and expressive traits, trait stereotypes, and sexist attitudes: What do they signify? *Psychology of Women Quarterly*, 24, 44-62.
- Spence, J. T., eta Helmreich, R. L. (1978). *Masculinity and femininity: Their psychological dimensions, correlates and antecedents.* Austin: University of Texas Press.
- Tajfel, H. eta Turner, J. C. (1986). *The social identity theory of inter-group behavior.* In S. Worchel eta L. W. Austin (ed.), *Psicología de relaciones intergrupo.* Chicago: Nelson-Hall
- hainbat egile. (2015). *State of the world fathers.* New York, Men Care, Promundo, Save the Children.

## ESKER ONAK

Lan hau ez zen egin izango Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaritzaren eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailaren gidaritza, finantzazio eta lankidetzarik gabe. Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiogu bere lankidetzagatik, konfiantzagatik eta ulerkorra izan delako.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, modu anonimoan eta trukean ezer eskatu gabe parte hartu duten guztiei, gure galderei erantzun baitiete, banako edo bikoteko elkarrizketetan parte hartu baitute edo eztabaidako taldeetan egon baitira. Eta eskerrak funtsezko informatzaileekin harremanetan jartzen lagundu digutenei, edo ikerketaren berri eman dutenei beren inguru pertsonal eta profesionalean.

Eskerrak Deustuko Unibertsitatetik ere prozesu osoan proiektua aberasten lagundu digutenei eta topaketarako eta hausnarketarako hain gune egokia eskaini digutenei. Eta esker bereziak Toñi Caro eta María López Bellosori, beraien ekarpenak eta inplikazioa funtsezkoak izan baitira ikerketa hau ongi burutzeko.

Ikerketa honek ez zuen horrenbesteko helmenik izango Haurreskolen Patzuergoak, Ibaiondo ikastolako guraso elkarteak, Landaberde haurreskolak eta CCOO sindikatuak hedatzeko eman diguten babesik gabe.

# Eranskinak

## I.- LANKIDETZA ESKERTZEKO GUTUNA LABURTUTA



Lagun hori:

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkizu *"Euskal aiten inplikazioa seme-alaben hazkuntzan: erantzukidetasunean eta lan produktiboan daukan eragina"* ikerketan parte hartzeagatik eta laguntzeagatik.

Ikerketaren emaitzak ezagutu ondoren, gurasotasun positiboaren arloan gizonekin esku hartzeko baliabide baliotatu bat prestatzeko eta bikoteko bi kideen erantzukidetasuna bultzatzeko estrategia bat eta ekintza berriak definitzeko konpromisoa hartu dugu; izan ere, funtsezko balio eta printzipioetariko bat baita hori Euskal Autonomia Erkidegoan familia arloan egiten diren politika publikoetan.

Eusko Jaurlaritzak, ikerketa-taldeak -Ritxar Bacete González eta Leire Gartzia Fernández (Deustuko Unibertsitatea) buru direla- eman diren datu guztien konfidentialtasuna bermatzen du. Datuak modu anonimoan erabiliko dira, eta ikerketa honetarako eta ezarritako helburuetarako baino ez dira erabiliko.

Estimado amigo/a,

La Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, agradece sinceramente tu participación y colaboración en esta investigación sobre la *"Implicación de los padres vascos en la crianza: impacto en la corresponsabilidad y en el trabajo productivo"*.

Una vez tengamos los resultados de la investigación nuestro compromiso es elaborar una herramienta validada de intervención con hombres en materia de parentalidad positiva y definir una estrategia y nuevas acciones para promover la corresponsabilidad de ambos miembros de la pareja, que es uno de los valores fundamentales y principios inspiradores de las políticas públicas de Familia en Euskadi.

Desde el Gobierno Vasco, el equipo investigador -liderado por Ritxar Bacete González y Leire Gartzia Fernández (Universidad de Deusto)- garantizamos la total confidencialidad de los datos aportados, que serán utilizados de forma anónima, exclusivamente en el marco de la presente investigación y para los fines establecidos.

ESKERRIK ASKO PARTE  
HARTZEAGATIK!

¡MUCHAS GRACIAS POR TU  
PARTICIPACIÓN!

Vitoria-Gasteizen, 2015eko irailaren 9an / Vitoria-Gasteiz, a 9 de septiembre de 2015



Izpta./Fdo.: Jose Luis Madrazo-Juanes  
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria  
Director de Política Familiar y Desarrollo Comunitario

## II.- LANKIDETZA ESKERTZEKO GUTUN LUZEA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA**

Gizarte Politiketako Balburuordetza  
Familia Politikarako eta Komunitate  
Garapenerako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y  
POLÍTICAS SOCIALES**

Viceconsejería de Políticas Sociales  
Dirección de Política Familiar y  
Desarrollo Comunitario

Lagun hori:

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkizu *"Euskal aiten inplikazioa seme-alaben hazkuntzan: erantzukidetasunean eta lan produktiboan daukan eragina"* ikerketan parte hartzeagatik eta laguntzeagatik.

Oso ondo dakigu azken urteotan aldaketak izan direla berdintasunaren alorrean, eta aitek zaintzaile gisa betetzen duten rolean, eta gero eta inplikazio handiagoa dutela etxeko zereginetan... eta badakigu, era berean, zailtasunak daudela oraindik ere bizitza pertsonala, profesionala eta familiarra behar bezala uztartzeko orduan.

Azterketa honen bidez, hobeto jakin nahi izan dugu zer nolakoa den aita eta amen erantzukidetasuna seme-alaben hazkuntzan, bai eta, aitatasunaren-amatasunaren ondoren, nola esleitzen diren rolak, nola berregokitzen diren ordutegiak, lan produktiboa, etab. Gertatzen ari diren aldaketen berri izan nahi dugu, eta bikoteko bi kideek nola bizi duten hori jakin nahi dugu. Eta horren helburua da era guztietako familien beharrezararako politika konprometituagoak eta eraginkorrakoak ezartzia.

Ikerketaren emaitzak ezagutu ondoren, gurasotasun positiboaren arloan gizonekin esku hartzeko baliabide balioztatu bat prestatzeko eta bikoteko bi kideen erantzukidetasuna bultzatzeko estrategia bat eta ekintza berriak definitzeko konpromisoa hartu dugu; izan ere, funtsezko balio eta printzipioetariko bat baita hori Euskal Autonomia Erkidegoan familia arloan egiten diren politika publikoetan.

Eusko Jaurlaritzak, ikerketa-taldeak -Ritxar Bacete González eta Leire Gartzia Fernández (Deustuko Unibertsitatea) buru direla- eman diren datu guztien konfidentialtasuna bermatzen du. Datuak modu anonimoan erabiliko dira, eta ikerketa honetarako eta ezarritako helburuetarako baino ez dira erabiliko.

Estimado amigo/a,

La Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, agradece sinceramente tu participación y colaboración en esta investigación sobre la *"Implicación de los padres vascos en la crianza: impacto en la corresponsabilidad y en el trabajo productivo"*.

Somos plenamente conscientes de los cambios que se han producido en los últimos años en material de igualdad y en los roles que desempeñan los padres (varones) como cuidadores, así como su mayor implicación en los trabajos domésticos... y también lo somos, de las dificultades que siguen existiendo de cara a conciliar positivamente la vida personal, con la profesional y familiar.

Con este estudio nos planteamos conocer mejor cómo se desarrolla la corresponsabilidad de padres y madres respecto a la crianza de los hijos e hijas, cómo tras la paternidad-maternidad se reasignan los roles, reajustan horarios, el trabajo productivo, etcétera. Pretendemos conocer los cambios que se están produciendo y cómo lo vivencian ambos miembros de la pareja. Todo ello para poder desarrollar políticas más comprometidas y eficaces con las necesidades de todo tipo de familias.

Conocidos los resultados de la investigación nuestro compromiso es elaborar una herramienta validada de intervención con hombres en materia de parentalidad positiva y definir una estrategia y nuevas acciones para promover la corresponsabilidad de ambos miembros de la pareja, que es uno de los valores fundamentales y principios inspiradores de las políticas públicas de Familia en Euskadi.

Desde el Gobierno Vasco, el equipo investigador -liderado por Ritxar Bacete González y Leire Gartzia Fernández (Universidad de Deusto)- garantizamos la total confidencialidad de los datos aportados, que serán utilizados de forma anónima, exclusivamente en el marco de la presente investigación y para los fines establecidos.

ESKERRIK ASKO PARTE HARTZEAGATIK!

¡MUCHAS GRACIAS POR TU PARTICIPACIÓN!

Vitoria-Gasteizen, 2015eko irailaren 9an / Vitoria-Gasteiz, a 9 de septiembre de 2015



Izpta./Fdo.: Jose Luis Madrazo-Juanes  
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria  
Director de Política Familiar y Desarrollo Comunitario

Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ  
Tef. 012 ZUZENEAN - Fax 945 016340 - e-mail: [familia@euskadi.eus](mailto:familia@euskadi.eus)